

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a / 712. zenbakia

HAUTESKUNDEAK/ Arrasaten ere gainerako herrietan moduan

EAJ-EA koalizioak irabazi egin du, baina emaitza eskasagoekin; EHAK bigarren

UBANE MADERA

Ibarrean izan den abstentzioa kontuan hartuta, Gatzagarekin eta Eskoriatzarekin batera, kopururik handiena izan du Arrasatek: %32,1. Gainerakoari begirata, normaltasuna nagusitu zen arren, EHNarekin gorabeherak izan ziren San Andres auzoan.

Herritar batek botoa EHNarekin eman gura zuela-eta, PPko kontu-hartzaile batek Bedoñabeko hauteslekuan tirabirak izan zituen mahai batean. Horren kontura, mahaikideen eta kontu-hartzailearen arteko eztabaida berotzen joan zen eta hitz potoloren bat zein beste entzun zen. Kontu-hartzaileak argazkiak-eta guzti atera zizkien mahaikideei. Zorionez, hortxe geratu zen guztia. Hori bai, gertatutakoa jasota geratu zen mahai hartako aktan.

BOTOEN BANAKETA, EAJ/EA ETA EHAK

Botoei begirata, berriz, EAJ-EA koalizioak lortu ditu gehien Arrasaten, baina 2001eko hauteskundeekin alderatuz gero, 1.964 boto gutxiago eskuratu ditu, sei puntu jaitsi ditu. Hain zuzen ere, boto gehien galdu dituen koalizioa da.

EHAK izan da bigarren alderdi bozkatuena Arrasaten eta EHAK izan da botoak irabazi dituen alderdi bakarra: 2001eko hauteskundeekin konparatuz gero, EHk baino 73 boto gehiago; oro har, 3,9 puntu gehiago.

PSE-EE OSO ANTZERA, PP BEHERA

PSE-EE alderdiari dagokionez, lortutako botoen arabera, hirugarren indarra da gurean. Aurreko hauteskundeekin alderatuz gero, emaitza antzerakoak izan ditu, 14 boto gutxiago besterik ez; baina, era berean, lehen baino 3,1 puntu gehiago lortu ditu.

Alderdi Popularrari begirata, laugarren indarra izaten segitzen du PPK herrian, baina nabarmen egin du behera esku-ratutako boto kopuruak: 1.076 gutxiago. Ia lehengo kopuruaren erdia; 5,4 puntu gutxiago, hain zuzen ere. Ezker Batuari dago-



IKER BARANDIARAN

Bestelako hauteskundeetan baino lasterrago bukatu zuten kutxetan batutako botoak kontatzen.

kionez, berriz, eutsi egin die 2001eko hauteskundeen emaitzei; oro har, 153 boto gutxiago izan ditu; baina era berean, abstentzioaren eraginez, 0,2 puntuan egin du gora.

Bukatzeko, Aralarren emaitzei begirata, 621 boto jaso ditu lehen aldi honetan; 4,77 puntu lortu ditu.

Gora egin du EHAK-k. PSE-EE eta EB antzera geratu dira; eta PP eta EAJ-EAK behera egin dute

BESTELAKO ALDERDIAK



Aipatutako alderdi horiez gainera, beste batzuek ere aurkeztu dira Legebiltzarrerako hauteskundeetara, nahiz eta boto kopuru txikia lortu, Arrasaten behintzat.

Esaterako, Berdeak-PACMA izeneko alderdiak 44 boto eskuratu ditu gurean; Unidad Ala-

vesak, berriz, 13 boto. Alderdi Obrero Sozialista Internazionala izeneko alderdia ere aurkeztu da (POSI) eta 25 boto eskuratu ditu Arrasaten; eta azken urteotan moduan, Alderdi Humanistak ere izan du presentzia hauteskundeetan; guztira, bederatzita boto eman dizkiote arrasatearrek.

Hauteskundeetako datuak auzoz auzo

	Erdialdea		Santa Marina		Musakola		San Andres		Uribarri		Auzoak		Guztira	
Hautesleen kopurua	6.079	%100	2.313	%100	2.256	%100	2.878	%100	4.766	%100	1.015	%100	19.313	%100
Boto-emaileak	4.531	%74,46	1.342	%58,02	1.588	%70,39	1.939	%67,37	3.331	%69,89	384	%37,83	13.115	%67,91
Abstentzioa	1.554	%25,54	971	%41,98	668	%29,61	939	%32,63	1.435	%30,11	631	%62,17	6.198	%32,09
EAJ/EA Koalizioa	2.067	%45,85	226	%17,06	583	%36,9	586	%30,43	1.005	%30,39	190	%49,74	4.657	%35,75
EHAK	1.115	%24,73	150	%11,32	402	%25,44	349	%18,12	753	%22,77	91	%23,82	2.860	%21,95
PSE-EE	441	%9,78	563	%42,49	271	%17,15	529	%27,47	772	%23,34	23	%6,02	2.599	%19,95
PP	301	%6,68	192	%14,49	122	%7,72	237	%12,31	305	%9,22	37	%9,69	1.194	%9,16
EB	305	%6,77	150	%11,32	131	%8,29	127	%6,59	274	%8,29	19	%4,97	1.006	%7,72
Aralar	260	%5,77	35	%2,64	58	%3,67	78	%4,05	170	%5,14	20	%5,24	621	%4,77



U.M.

Ezkerreko argazkiak erakusten du Urra etxea ia botata dagoela; eskumakoak, berriz, han inguruan egiten dabiltzan etxebizitza berrietako baten hezurdura.

HIRIGINTZA/ Garaia Berrikuntza Gunea

Urta etxea bota ostean, laster hasiko dira Garaia guneko eraikin berriak egiten

UBANE MADERA

Uribarriko Urta etxea desagertu da Arrasatetik. Oraingo asteko eguaztenean bota zuten, Garaia Berrikuntza Guneari lekua egiteko. Horren harira, lanak nahiko aurreratu dituzte eta inguru hura hasi da izango denaren itxura hartzen.

Nahiketxo aldatzen dabil azkenaldian Uribarri auzoa. Gautxori etxea bota zuten lehenengo (aurtengo urtarrilean). Orain, berriz, Urta etxea bota dute. Eta etorkizunean, Uribe baserri biak eta Goiru baserria botako dituzte. Horrez gainera, Ikutixoa baserria ordenazioz kanpo dago, Egitamu Orokorraren arabera,

beraz, haren etorkizuna ere zalantzan dago.

URRA ETXEA

Urta izeneko etxeari dagokionez, inguruko baserriekin konparatuta, berri samarra da. Ondoko baserri batek ukuilu moduan erabiltzen zuen eraikin hura. Baina Urta familiak berrikuntza lanak

*Uribarri auzoa
hasi da
etorkizunean izango
denaren itxura
hartzen*

egin eta etxebizitza bilakatu zuen. Hantxe bizi izan dira orain arte. Eta hemendik aurrera ere han inguruan biziko dira Urratarrak. Izan ere, Garaia-koekin hitzartutakoaren arabera, Garaia Berrikuntza Gunean bertan eraikiko diete beste etxebizitza bat. Urta zegoen lekuan, berriz, Garaia Berrikuntza Gunerako sarbidea

*Guztira 400.000
metro karratuko
eremua hartuko du
Garaia-koekin; 46 milioi
inbertituko dituzte*

eta Garaia-koekin eraikin bat egingo dituzte.

GARAIAREN NONDIK NORAKOAK

Garaia Berrikuntza Gunearen eraikuntzari dagokionez, asko aurreratu dituzte lanak.

Aurreneko fase horretan 100.000 metro koadroko eremuan egingo dituzte obrak, azpiegiturak sartzeko. 20 milioi euroko inbertsioa egingo dute.

Dena dela, guztira, 440.000 metro karratuko eremua hartuko du Garaia-koekin, eta 46 milioi inbertsioa egingo dute. Egingo dituzten eraikinak (ikerketaguneak, etxebizitzak...) moderno itxurakoak izango dira. Etxebizitza horietako baten hezurdu-ra egin dute dagoeneko.

Biteri oinezkoen aisialdirako gune bihurtu guran dabil Udala

U.M.


Ondoko planoan ikusten duzuenaren antzera utziko du Udalak Biteri ingurua, aparkaleku berriko lanak bukatzen dituztenean.

AISIALDIRAKO GUNEA

Biteri aparkalekua lurrazpikoa izango da. Hala, Udalaren asmoa da haren gaineko aldean sortzen den espazioa oinezkoen aisialdirako gune izateko aprobetxatzea. Are gehiago, herritarrei aukera

eman gura die gune horren erabilera eta itxura zein izango den erabakitzen laguntzeko. Interesa duenak www.arrasate-mondragon.org webgunea erabili behar du.

Lanok bukatzen dituztenean, eraldatuta utziko dute Garibai etorbidea, Maalako Errebala eta Biteri kalearen artean dagoen inguru hura. Aurreikuspenen arabera, 2006aren bukaeran edo 2007aren hasieran bukatuko dituzte lanak.



ARRASATEKO UDALA

Udalak herritarren parte-hartzea gura du, plazaren itxura erabakitzeko.

LABUR

Eroski Fundazioaren eskutik, osasuna hizpide izango da

Datorren eguaztenean eta eguenean (hilak 27 eta 28) osasunarekin lotutako hitzaldiak izango dira Monterron jauregian. Portugaleteko klinikako medikuntza orokorreko mediku Alberto Rodriguezek emango ditu hitzaldiak. *Kardiobaskularra I* eta *Kardiobaskularra II* dira izenburuak. 16:30ean hasiko dira hitzaldiak.

Argazkilaritzaren gaineko lantegia, kamera digitalekin

Maiatzaren 5ean, 12an, 19an eta 26an egingo dute argazkilaritza ikastaroa. Oraingo honetan, argazkilaritza digitala aztertuko dute Emakume Txokoan. Arratsaldean izango dira eskolak, 18:00etan hasi eta 20:00ak arte. Interesa duenak apirilaren 25etik 29ra bitartean eman behar du izena, 943 79 41 39 telefono zenbakian.

Ur-sorospen ikastaroa izango da, kiroldegian

Maiatzaren 7tik 29ra arte ur-sorospen ikastaroa izango da Muskolako kiroldegian. 50 orduko ikastaroa da eta asteburuetan emango dute: zapatuetan 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara; eta domeketan, 09:30etik 13:30era. Makina bat gai landuko dituzte: ur-istripuen prebentzioa, salbamenduzko materiala, murgiltze sindromea, salbamenduzko igeriketa, ur-sorosleak izan behar duen jarrera psikofisiologikoa... Ikastaro horrek aukera librean hartutako kredituak amortizatzeko balio du; eta lan-eskaintza publikoan puntuagarria da. Izeha emateko, 600 64 80 14 telefonora deitu behar da. Bazkideek 180 euro ordaindu beharko dute; gai-nerakoek 210 euro.

Traste zaharrak eta erabilitako olioak batzeko hitzorduak

Datorren martitzenean, hilak 26, traste zaharrak batzera erriko dira. 20:00etatik 22:00etara atera behar dira, baina aurrez deitu beharra dago. Abisatzeko: 943 71 19 38. Trasteok edukiontzien kontra erabiltzeko eskatu du Mankomunitateak. Bestalde, egubakoitzean, hilak 29, erabilitako olioak eta batuko dituzte. Lab-biden, 09:00etatik 13:00etara.

Behar gehien dutenei enplegua lortzen laguntzeko programa: Auzolan

U.M.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak behar dituztenei enplegua lortzen laguntzeko programa abiarazi behar du Udalak laster. Auzolan izena du. Helburua da beharrak dituztenei lanerako formazioa, praktika eta orientazioa ematea. Halako zerbait egingo den lehen aldia da.

Zortzi lagunek parte hartuko dute lehen aldi honetan. Udaleko Gizarte Zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarrak dira, esaterako, oinarrizko errenta jasotzen dutenak edo baztertzeko arriskuan dagoen edozein, batez ere, lan-merkatutik kanpo urte ugari daramatenak. Horrenbestez, tresna egokia izan daiteke, besteak beste, udal erroldan inskribatuta egonda, nahitaezko lan baimena lortu barik duten etorkinendako.

Hasierako zortzi lagunentzako taldea Udalean dagoen zerrrendaren arabera osatu du Udalak.

ZER EGINGO DUTEN

Gizarte Saileko teknikari Iñigo Garitanok azaldu digunez, lehenengo hasierako ikastaro bat egingo dute, maiatzaren 30etik ekainaren 3ra arte. Gero, sei hilabetean, lanean jardungo dute, aldi baterako lan kontra-



Batez ere, lan-merkatutik kanpo urte ugari daramatenendako programa da.

tuarekin. Abenduaren 12ra bitartean egingo dute hori eta lan kontratuak 2005eko ekainaren 15etik abenduaren 14ra bitartekoak izango dira.

Era berean, tarte horretan formazioa ere emango diete.

Eta bukatzeko, abendu amaieran, ebaluaketa egingo dute parte-hartzaile guztiekin, eta besteak beste, enplegua lortu ahal izateko orientazioa emango diete.

TRESNA BALIAGARRIA

Eusko Jaurlaritzak bideratutako ekimena da Auzolan. Hala, aurreko urteetan programa horrek lortutako emaitzak ikusita, bultzatzaileek baloratu dute tresna baliagarria dela parte hartzen dutenek gaitasun profesional egokia jasotzeko.

Orain, Arrasateko Udala ere sartu da programa horretan. Jaurlaritzak 87.286 euro pasatxoko dirulaguntza eman dio horretarako.

Aldizkari bat aterako du Udalak, oraingoa gurasoendako

U.M.

Gurasoei zuzendutako aldizkari bat egiteko proiektua onartu du Udalak. Seme-alaben heziketarekin zerikusia duten gaien gaineko informazioa gurasoei etxera helaraztea da helburua.

Udalaren ikuspuntutik, "modu horretan, Guraso Eskolan edo gurasoei zuzendutako hitzaldietan motibazio edo denbora faltagatik parte hartzen ez duten gurasoengana ere iritsiko dira" aldizkari horren bitartez.

Halaber, aldizkariaren bitartez, "familiar arrisku faktoreak agertzea erraztu dezaketen jarraera eta portaerak aldarazteko" bideak bultzatuko dituzte.

Hala, 0 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei bida-

liko die Udalak aldizkaria. Barruko edukiak adin tarteen arabera banatuko dituzte. Hala, 0-6, 6-12 eta 12-18 adin-tarteei egokitutako gaiak landuko dituzte. Halaber, gurasoek aukera izango dute aldizkariarako gaiak proposatzeko; eta ikastetxeen eta guraso elkartearen parte-hartzea ere bultzatuko dute.

Aldizkaria ele bitan izango da: euskaraz eta espainieraz.

Etxeetara bidaltzeaz gainera, ale batzuk, besteak beste, liburutegietan, ikastetxeetan eta Emakume Txokotan utziko dituzte. Guztira 2.100 ale banatuko dituzte.

HASTEKO, BI ALE

Udalaren asmoa da urtean lau bider argitaratzea aldizkaria. Edozelan ere, aurtengo ikasturtean bi ale aterako dituztela jakinarazi digute: bata uda baino lehen, eta bestea uda ostean.



IKER BARANDIARAN

0-18 urteko gazteen gurasoei zuzendutako aldizkari berria argitaratuko dute.

Aita Santuen aldeko otoitzak eta beste, San Andres parrokian

U.M.

Bihar, zapatua, Eukaristia berezia ospatuko dute San Andresko parrokian. Aita Santu bien aldekoa; hil denaren eta izendatu berriaren aldekoa, alegia. Datorren astean, berriz, hitzaldia egingo dute.

San Andresko parrokiak gonbidapena egin die Juan Pablo II.a eta Benedicto XVI.a (Joseph

Ratzinger izendatu berria) Aita Santuen alde errezzatu gura duten guztiei. Izan ere, munduko parrokia gehientsuenetan moduan, biharko Eukaristia bi Aita Santu horien aldekoa izango da.

Jakinarazi digutenez, batetik, Juan Pablo II.aren atsedenen alde errezzatuko dute. Eta bestetik, Benedicto XVI.ak Aitasantutza emankorra izateko egingo dute otoitz. 19:00etan hasiko da meza.

OSASUNAREN GAINEKO HITZALDIA

Bestalde, datorren astean hitzaldia izango dela jakinarazi digute. *Bioteknikaren bilakaera eta garapena eta Bizi Testamentua* izenburua du. Luzia Galparsoro medikua ekarriko dute hizlari lanak egitera.

Hitzaldia 19:00etan hasiko da, San Andresko parrokiaren lokalatan (Dr. Bañez kalea, 1). Osasunaren Pastoralak antolatu du ekimena.

LABUR

Hiri izaerako ondasunen zerrenda eta zaborra jasotzeagatik zerga ordaintzeko epea

Batetik, 2005eko landa eta hiri izaerako ondasun higiezin gainera zergaren errolda laster izango dela jendaurrean jakinarazi digu Udalak. Hain justu ere, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epea bukatu eta gero izango da jendaurrean. Orduantxe zabalduko dute erreklamazioak aurkezteko epea. Bestetik, aurtengo lehenengo sei hilabeteko hiri hondakin solidoak (zaborra) batzearen tasa laster kobratzen hasiko direla ere jakinarazi dute. Iaz arte, hiru hiletik behin kobratzen zuten; orain, berriz, sei hiletik behin kobratuko dute.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.

Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

BASATI

TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711768

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 22**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 23**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- DOMEKA, 24**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 25**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- MARTITZENA, 26**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 27**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- EGUENA, 28**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUBAKOITZA, 29**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DVA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta Jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| San Juan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:00 (elebiduna)
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka
12:30 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
11:00 (elebiduna) |

OHARRAK

UMEEN DANBORRADA
San Juanetako umeen danborradan esku hartzeko, jo SUDCeke egoitzara (Pablo Uranga, 4) astelehenetik, hilaren 25etik, aurrera, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

EUSKALANEN BATZARRA
Martitzenean, hilaren 26an, Euskalaneke batzar orokorra egingo du Monterronen, 18:30ean.

EROSKIKO BERBALDIK
Eguaztenean, hilaren 27an, eta eguenean, 28an, Eroskiko kontsumitzaileen eskolak gaixotasun kardio-baskularren gainean berbaldiak egingo dituzte, 16:30ean. Alberto Rodriguez medikua izango da hizlaria.

TXATXILIPURDIKO UDALEKUAK
Txatxilipurdik aditzera eman du udaleku itxi eta irekietan izena emateko epea amaitzeko hilabete falta dela. Interesatuok jo Txatxilipurdira lehenbailehen.

ARIZMENDIKO GURASO ESKOLA
Arizmendi Ikastolak gurasoendako berbaldiak antolatzen dihardu. Martitzenean, hilaren 26an, *Nola aurre egin agresibitate egoerei* berbaldi egingo du Eskoriatzako Jose Arana gunean, 18:00etan. Mintza psikologia zentroko Jose Felix Aspiazuk emango du.

AEDren AGENDA

EUSKAL KANTUEN LIBURUKA
Sehaskak kaleratutako euskal kantuen liburuxka salgai dute AEDn. Familia edo lagunarteko ospakizunetarako aproposa da, eta 2-6 eurotan saltzen dute.


URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Arrasatearrek brontzezko domina 4x400 erreleboan

Juan Carlos Martin, Martin Davila, Aitor Arnaiz eta Manu Anguasek Gipuzkoako Txapelketako 4x400 erreleboan hirugarren postua lortu zuten. Hortaz, brontzezko domina jaso zuten. Taldekako txapelketa Anoetan egin zuten, eta Gipuzkoako zazpi taldek esku hartu zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Metan aín. — Bedarrondua metatzen djardu... eñk... urixa dotar da. ION JRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



'Ilargi Handi Zauri Zarae' disko-liburu bitxia aurkeztuko digute asteburuko hitzorduan

Astean, *Ilargi Handi Zauri Zarae* disko-liburua aurkeztu dutela eta, proiektu hori bultzatu duten bi kide izan dira *Igo Autobusera!* saioan: Patxi Hipolito, Potxo Argitazuloko ordezkarria; eta Xabi Strubel musikaria.

Liburuxka berezi horretan, Lorcaren eta Lauaxetaren poemak jaso dituzte, Zura taldearen doinuekin musikatuak. Hitz horiekin azaldu ziguten egitasmoaren bultzatzaileek, astearren gainbegiratuan entzungo duzen moduan.

BENEDICTO XVI
Joseph Ratzinger kardinala, Benedicto XVI, Aita Santu berria astean aukeratu dutela eta, Genaro Lekuona, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizako parrokoa, ere Arrasate Irratira gonbidatu dugu bere iritzia jasotzeko. Arrasateko parrokoarekin batera, Juan Kruz Juaristi Gipuzkoako Elizbarrutiko misioetako arduraduna eta urteetan Afrikan misiolari ibilitakoak esandakoak ere berreskuratu ditugu asteburuko hitzorduan.

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 19	3 °C
MAXIMOA Eguaztena, 13	16 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	111 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 13	16 °C 3 °C - l/m²
Eguena, 14	15 °C 6 °C 14,4 l/m²
Egubakoitza, 15	12 °C 6 °C 42,8 l/m²
Zapatua, 16	9 °C 5 °C 21,4 l/m²
Domeka, 17	12 °C 5 °C 9,3 l/m²
Astelehena, 18	15 °C 9 °C 9,7 l/m²
Martitzena, 19	15 °C 3 °C 13,3 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratura:** Genaro Lekuona parrokoa, Aita Santuaren gainegaitza Natxo de Felipe, Oskorri; Pello Zabala, lauro en inguruan; Xabi Strubel eta Patxi Hipolito. *Ilargi Handi Zauri Zarae* egitasmoaz...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratura.**
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landal). Elkarrizketak. Zozketak, e.a...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.** Parte hartzeko: 943 71 17 31 Tel.
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Españako gobernuak esan dau 30 metro kuadroko etxiek egin biher dauela.



ARANTZA GABIRIA
Langillie



JUAN MANCEBO
Langillie



ALBERTO URIBARREN
Langillie



IÑIGO JIMENEZ
Langillie



VICENTA RODRIGUEZ
Langillie



ESTEFANIA IZAGIRRE
Langillie

Txikixegixek die. Denbora laburrien pertsona bakarria bizitzeko iguel bai, baiñe bi pertsonandako ez. Lagunik be ezin eruen! Lurre merketu deixiela edo gutxienez 50 metrokuek egin.

Oso txikixek die, baiñe iguel batzuek aukerie izen leike denpora jakin baterako-edo. Besterik ez badau, bada zeozer baiñe... Ez leukie itxi biher espeluzaziñorik egitten.

Aukera bat izen leike, baiñe familixie edo parejiek euki ezker, oso gatxa ikusten dot hor bizi izetie. Batendako bakarrik bada, bai. Extranjeruen be jente asko estudixuetan bizi da.

Gaztiendako irtenbide bat izen leike, etxiek erostie edo alkiletie oso garestixe dalako. Hala eta be, egixe da oso txikixek diela. Babes Ofizialeko Etxe gehixau egin biherko leukie.

Oso txarto. Gaztiendako be ez die aproposak. Katuendako be ez. 50 metrokuek izengo bazien, iguel bai, baiñe 30 metrokuek ez. Gobernuak zeozer egin biher dau hori konponketako.

Pentsetan dot bakarrik dauzen gaztiendako aukera bat dala, baiñe denpora laburrerako izen biherko litzakela. Hala eta be, ez dot pentsetan dauen problemien soluziñue danik.

USTEAKUSTE

Galderak

Aste honetan hauteskunderen biharamuna dugu: aspaldiko partez, EAJ-EAren hegemonia kolokan jarri dute; *komunistek* itzulera indartsua izan dute; PP poliki-poliki gainbehera doa -baina ez fidatu-; PSE indarberrituta dator; Ezker Batuak ez ditu espero zituen emaitzak lortu; eta Aralarrek badu ordezkari-tza... Politika analistek jakingo dute hori dena itzultzen: hau da, orain dela 4 urte EAJ-EAk jasotako emaitzak behin behinekoak izan ote ziren; edo horrela ez bazen, horietako hainbatek PSEri babesa ematea erabaki duten eta abar. Hori guztia eta legebiltzarreko gobernu zeintzuk osatuko duten dira galdegai nagusienak.

Beste batzuen galderak, dagoeneko, argitu edo ilundu dira: ke zuria bota omen dute eta Ratzinger delakoa Aita Santu berri izendatu dute.

Gai eta galdera hutsalak dira horiek azken aldian ibarrean gertatutako beste batzuekin alderatuz. Joan den astean Oihana Torrealda gazte arrasatearra hil zen istripuz Errioxan, eta aste honetan lau gazte oñatiar Zubillaga inguruan hil dira beste auto istripu baten. Gogorra, benetan, hain gazte hiltzea. Animoak senitarteko eta lagunei.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK SEINALE NAHASGARRIA Aspaldian Ferixalekua zeharo aldrebestuta dago. Mondragones eta Azoka kalean egiten dabilzan lanen ondorioz, aparkaleku kopurua murriztu dute. Are gehiago, Otalora kalean, Correosen parean, marra horiak jarri dituzte lurrean eta seinale nahasgarri bat ipini dute. Auzotarrek uste dute aparkaleku horiek azokara datozen kamioiek eta furgonetek erabiltzeko direla, baina berez azoka eguaztenetan eta egubakoitzetan bakarrik egiten dute. Auzotarrek zalantza horiek argitzea gura dute.

ASTEKODATUA

95

**LAN AURKEZTU DITUZTE
ARRASATE LEHIAKETETARA**

Astean eman dituzte aditzera AEDk antolatu dituen XVIII. Arrasate Lehiaketetako irabazleak. 95 lan aurkeztu dituzte lehiaketetara: 51 ipuin, 11 poema, 19 bertso paper eta 14 komiki. Pozik daude antolatzaileak ekimenak duen harrerarekin.

HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



Pilota gorriak

Koloretan bereizi gura ditugu gauzak. Kolore bakoitzak badaukalako bere zentzia herri orotan. Eta gure Euskal Herrian ere, iraganak erakutsi digu euskaldunon kolore bisioa gure herri-kolorearen erakusgarri dela. Eta badira pertsona beltzak, ile urdinak, egun grisak...

Baina bada kolore bat gure herrian bereziki nagusitzen dena, zuria. Zuria baita euskaldunontzat faltukeriatan eta gezurretan dabilen maltzuraren kolorea. Zuria baita, zurikeriatan dabilena, egia estali nahi duena, ezertan konpromisorik hartu gura ez duena, karearen kolorea bezain doilorra da zuria. Ustearen kolorea da zuria.

Eta kaleko paretak zuriz estali nahi dizkiguten garai honetan, koloretako ahotsak zuri-beltzez isildu nahi dizkiguten honetan, gorritz tindatuta ikusten ditut azkenotan gure herriko txokoak. Eta

aurreko aldian nioen, gorria zela odola bezain bizi egiten gaituen kolorea. Eta hala ikusten ditut gauzak azkenaldian: Madrilen epaitu gura gaituzten euskal gazteon kolore gorria, gure herrian bizi dugun egoera politiko nahasiaren gordintasunaren gorria, politikarien hitzek eragiten didaten lotsaren eta añorruaren gorria... gorriak ikusten igarotzen baititugu egunak eta asteak.

“Bada gorri bat, moztu gura dituzten loreen artean, udaberria ekartzeko jaio dena. Gure iritzi publikoa heltzen hasia da”

Eta bada gorri bat, moztu gura dituzten loreen artean, udaberria ekartzeko jaio dena. Gure iritzi publikoa heltzen hasia da. Eta badirudi, kolore gorria orotariko perimetroetan zabaltzen ari dela. Demokrasiaren eta bakearen gorria kalean dago, konponbidearen gorria parlamentuaren perimetroetara ere iritsi da. Pilota gorria haien eskuetan ere badago. Bitartean, kalean pilota gorriarekin golak sartzen jarraituko dugu... *gol en el campo, paz en la tierra!*

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Karmele Etxabe

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila




Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



GOIENKARIA

Nestorren aurpegiak ondo erakusten duen moduan, liderraren kontra tentsioak ezin du behera egin.

KIROLA/ Mondrak eta Mugarri Alkesak etxetik urrun jokatu dute asteburuan

Bidasoa-Irun hartuko du AGRk Iturripen, igoera faseko liderra

XABIER URTZELAI

Deuston galduta, AGR Arrasate eskubaloitza taldeak hirugarren postura atzera egin du sailkapenean. Taldeak dituen helburuak kontuan hartuta, Arandoren mutilek egoera horri lehenbailehen eman behar diote buelta, liderraren kontra bada ere.

Bidasoa-Irun da igoera fasean gainontzeko taldeak baino maila bat gorago dagoen kontrarioa. Oraindik ez dute partidurik galdu, eta euren kontra erakutsi behar dute AGRkoek mailaz igozteko apustu sendoa egin dutela.

Indarrak parean dituzten bi talderen kontra galdu eta gero, ondo baino hobeto dabilena mendean hartu behar: ez da konpromiso makala. AGRk etxean jokatzeko duenean, baina, kontuz.

BIGARREN POSTUARI EUTSI GURAN

Mugarri Alkesa saskibaloitza taldeak Loiura egingo du bigaia asteburuan. Arrasatekoak bigarren postuari eusteko lehian dabilta, eta lider dagoen Tabirako ez dadila oharkabetu, atzetik datoz eta Zurututzaren mutiak. Joan den astean Consmetal erraz gaudituta, apur bat atzerago dagoen Urdanetaren kan-

txara joango dira bihar (18:00etan) Mugarri Alkesakoak.

EHU, BIGARREN POSTUAN

Mondra mailaz igo gura duen EHU taldearen zelaira joango da, Zubietara, hain zuzen. Realeko harrobikoak bigarren daude, Tolosaren atzetik. Eta, tolosarrak gaudituta ahal izateko EHUK garai-pena behar du. Mondra, berriz, norgehiagoka txukuna egin eta Zubietatik zapore gozua ekartzeko asmoarekin abiatuko da. Arrasateko jokalariek inguruko taldeek egin ezin dutena egin dezakete: larritasun barik futbolaz gozatu. Askok balio du horrek.

Mondrako neskek ez dute Oihana ahaztuko

Joan den astean hil zen Oihana Torrealdai, auto istripuan. Oihana irakaslea zen, eta Lantzegon zebilen lanean. Orain dela urte batzuk Mondran ibili zen jokatzeko, eta hutsune handia utzi du orduko jokalarientzako. Argazkian beheko lerroan dago, ezkerretik bigarrena. Arrasateko jokalariek izandakoek elkartzetara adierazi gura diete senitartekoei, eta Oihanari esan sekula ez dutela bere irribarrea ahaztuko. Argazkia Mondrako neskek Kopa Txapelketa irabazi zutenekoa da. /X.U.



LABUR

Haurrendako igeriketa ikastaroa eta bizkarra zaintzeko ikastaroa, kiroldegian

Apirilaren 25ean hasiko duten ikastaroan, sei hilabetetik lau urterara arteko gaztetxoek igeriketa ikastaroak egingo dituzte Musakolan. Hori bai, gaztetxoek gurasoekin egingo dute ikastaroa. Ikastaro horiek astean birritan egingo dituzte, eta umeak uretan erosoago egon daitezen, igerilekuko uraren tenperatura 32 gradura jarriko dute.

Horrekin batera, maiatzean hasiko dute gimnasia terapeutikoko ikastaroa, eta bizkar hezurra zaintzen ikastea izango dute helburu. Ikastaro horretan bizkar hezurra luzatzeko ariketak egingo dituzte. Hala, grabitateak eragiten duen presioa gutxitzea lortzen da. Ikastaro horien gaineko informazio gehiago Musakolako kiroldegian, edo 943 77 16 77 telefono zenbakian.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

HLB - Torpedo Musakola	4-2
Saukelu Scream - AT Celaya	4-2
Atzeratutako ligako norgehiagoka:	
La Kuadrilla - Billy & The Cowboys	3-3

PARTIDUAK

APIRILAK 23, ZAPATUA. EPAILEAK

11:00: AC Surcos - Ekipo Aldea. You Know!
12:00: You Know! - AT Celaya. Ekipo Alde.
13:00: Saukelu Scr. - HLB 108. AT Celaya.
16:00: Lasagabaster - La Kuadrilla. Betraye.
17:00: Fuxion - Betraye. Lasagabaster.
18:00: Tomahawk - Irati Tab. Fuxion.

APIRILAK 24, DOMEKA. EPAILEAK

12:00: Iriztu Tab. - Manhattan Pip. Billy &...
13:00: Torpedo Mus. - Billy & The... Iriztu.

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	24	15
2. Saukelu Scream	24	15
3. Irati Taberna	22	15
4. Betraye	22	15
5. AC Surcos	22	16
6. Dribling	20	16
7. Iriztu Taberna	20	15
8. Lasagabaster	20	15
9. AT Celaya	15	14
10. Billy & The Cowboys	13	14
11. La Kuadrilla	12	14
12. Fuxion	11	15
13. HLB 108	10	15
14. Goma2	10	15
15. Torpedo Musakola	9	15
16. Abokajarro	9	15
17. Manhattan Pippol	8	15
18. Tomahawk	8	15
19. Ekipo Aldeano	5	15

SAUKELU SCREAM ETA HLB 108, FINALERA

ETA ASTEBURUAN, ELKARREN KONTRA JOKATUKO DUTE LIGAN

Saukelu Scream eta HLB 108 taldeak iritsi dira Kopako finalera, aurten berritasuna izan den txapelketaren azkenera. Saukelurena ez da sorpresa izan, baina HLB 108k ligan aparteko indarra erakutsi barik, Kopan kontrario gogorra dela erakutsi du. Final horren aurrerapen modura jakin, oraingo asteburuan bi talde horiek elkarren kontra jokatu dutela, baina liga txapelketan. Indarrak neurtzeko balioko al du?

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA

Urdaneta - Mugarri Alkesa
Lehen maila. Zapatua. 18:00. Loiun.
Gros Xake - Mugarri Alkesa
Juniorkak Mut. Zapatua. 16:00. Donostian.
Mugarri Alkesa - Cafes Aitona
Kadeteak. Zapatua. 10:00. Musakolan.

FUTBOLA

EHU - Mondra
Preferentea. Zapatua. 18:00. Zubietan.
Dunboa Eguzki - Mondra
Ohor. Gazteak. Domekan. 14:45. Irunen.
Arrasate - Allerru
Gazteak. Zapatua. 16:00. Atxabalpen.
Zumaiako - Mondra
Ohor Kadet. Zapatua. 18:00. Zumaian.

Oiartzun - Arrasate

Alebinak. Domekan. 10:45. Donostian.

ESKUBALOA

AGR Arrasate - Bidasoa Irun
Igoera fasea. Zapatua. 19:00. Iturripen.
Arrasate - Leizaran
Bigarren territ. Kopa. Zapatua. 17:30. Iturripen.
Arrate - Gatz Museoa Jakion
Kopa gazteak. Domekan. 12:00. Eibarren.
Leizaran - Arrasate
Kopa neskek. Zapatua. 16:15. Andoainen.
Aldaketa Hamasei - Arrasate
Kadeteak kopa. Zapatua. 19:00. Andoainen.
EUSKADIKO MOUNTAIN BIKE TXAPELKETA
Gipuzkoako Txapelketa ere egongo da jokoa.
Domekan. 11:00. Ikerlango apartakalean.



Besteak beste, asteburuan, Saxo Ensemble taldeak kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian.

MUSIKENE

IKUSKIZUNAK/ Abesbatzak, saxo doinuak, umeendako emanaldiak eta rocka

Kolore askotako ikuskizunak egingo dituzte asteburuan

IKER BARANDIARAN

Asteburuan kolore guztietako ikuskizunak egingo dituzte herrian. Apirilko I. Musikaldiaren barruan, Orpheus abesbatza eta Saxo Ensemble; Oskorri eta Kukubiltxo, Uarkapen, Kilometroen alde; eta gaztetxean eta 3.60 aretoan, rock kontzertuak.

Bete-beteta dator asteburu honetako musika eskaintza. Apirilko I. Musikaldiak aurrera dihar du. Gaur, egubakoitza, Orpheus abesbatzak emanaldia egingo du San Juan Bataiatzailearen elizan, 20:30ean. Musika koralean interes handia zuen gazte talde batek sortu zuen 2000. urtean. Orditik hainbat ikuskizun egin dituzte: Leioako bandarekin Saharako umeen alde Euskalduna jauregian, Oviedoko auditorioan eta abar luze bat. 2001ean Arrigorriagako Abeslariak lehiaketan laugarren saria eskuratu zuten, eta iaz Segurako Molina

gabon-kanten lehiaketan txapel-dunak izan ziren.

Arrasaten hamasei gaztek esku hartuko dute, eta Isabel Mantecon izango da zuzendaria. Besteak beste, honako egileen kantuak abestuko dituzte: Ezkurra, Sancho, Tchaikovsky, Gallus eta abar.

SAXOFOI JOTZAILEEN KONZERTUA

Bihar, zapatua, Saxo Ensemble taldeak kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian, 20:30ean. Saxofoi jotzaileen taldea Musikene goi mailako ikastegiko 11 ikaslek osatzen dute. Eric Devallon irakaslea da zuzendaria. Davallon Baionako CNRko irakaslea izan zen, Parisko CNSMren saxofoi jotzaileen lehen saria jaso zuen, eta hainbat orkestra zuzendariren agindupean jo du (L'Orchestre de Paris, L'Orchestre National du Capitole de Toulouse...).

Gabriel Fauré, Darius Milhaud, Beethoven, Fancelli eta Mounierren piezak joko dituzte, besteak beste.

DOMEKAN, OSKORRI ETA KUKUBILTZO

Etzi, domeka, Oskorri eta Kukubiltzok kontzertua egingo dute Kilometroen alde. 18:00etan izango da eta sarreran 6 euro ordaindu beharko dira.

Oskorri eta Kukubiltzok *Doktor Do Re Mi* eta *Benedizebra* ikuskizuna aurkeztuko dute Arrasaten. Zuzeneko musika, jolasak eta beste hainbat sorpresa batuko dituzte emanaldian, eta umeei eta gurasoei zuzenduta dago. Are gehiago, aspaldiko euskal jolas tradizionalak berreskuratu eta berriro egingo dituzte.

ELEKTRA, NCC ETA BESTE BATZUK

Bihar, zapatua, rock zaleek ere izango dute zer ikusi. Gaztetxean, urteurrenoko ekitaldien barruan, Madrilgo Elecktra eta Zaldibarko Noisex taldeek metal kontzertua egingo dute, 22:30ean. Egun berean, 3.60 aretoan, Donostiako Nuevo Catecismo Católico eta Captain Nemok eta Arrasateko Quadropenic taldeek punk-rock eta hardcorea egingo dute, 23:00etan.

Pello Alberdi margolari elgetarraren erakusketa

I.B.

Joan den egubakoitzetik, hilaren 15a, maiatzaren 13ra arte Pello Alberdi margolari elgetarraren erakusketa izango da Arregi galerian. Olioak dira guztiak, eta batez ere paisaia urbanoak margotu ditu.

Pello Alberdi elgetarra da hila-bete honetan Arregi galeriako protagonista. Alberdik urte asko daramatza margolanak egiten. Bartzelonako Massanan bi urte egin zituen margolanen gaineko oinarritzakoa ikasten. Horren ostean, bere kontu ikasi du. Besteak beste, erakusketa ugari ikusi ditu, eta beste margolari batzuen lanak aztertu ditu.

Alberdik, orain arte, ez du erakusketa askorik egin. "Orain dela

gutxi, Gasteizen eta Bergaran ipini ditut lanak erakusgai, eta laster Elgetan ipiniko ditut, baina denbora luze baten ez dut inolako erakusketarik jarri. Beste lanbide bat daukat, eta beti ez dut denbora nahikorik izaten", azpimarratu zuen.

ARKITEKTURA ETA PAISAIA URBANOAK

Alberdik oso gustuko ditu arkitektura modernoa, azpiegiturak eta paisaia urbanoak. Hainbat herri eta hiritan ibili da halakoei argazkiak egiten. Horren ostean, irudi horiek bere kasa maneiatzen ditu bilbearekin (trama) eta koloreekin jolastuz. Are gehiago, esate baterako, margolan batzuetan bestelako bi irudiren zati erdiak batzen ditu

2003tik 2005era bitartean egingo dako lan bitxiak batu ditu.



Elgetako Pello Alberdi margolariak hamabost lan jarri ditu ikusgai Arregi galerian.

LABUR

Udaleko Kultura Sailak abian jarri du San Juan jaietako irudia aukeratzeko lehiaketa

Abian jarri dute San Juan jaietako irudia aukeratzeko lehiaketa. Debagoienean bizi edo erroldatutako edozein lagunek esku har dezake. Irudia gutxienez honako neurrian aurkeztu beharko da: 28x21 zentimetro. Teknika librea izango da, eta irudiek derrigorrez idatzi hau izan beharko dute: *2005 San Juan Jaiak Arrasate*. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du. Lanak 2005eko maiatzaren 20a aurretik aurkeztu beharko dira Udaletxeko Kultura Sailean.

kelnara
banda zabala

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Muruko antena etxetik ikusten baduzu, banda zabaleko eta kablerik gabeko internet zerbitzua izan dezakezu!

Horrela, hauek guztiak egin ahal izango dituzu etxetik bertatik herrira hurbildu gabe:

- **Goiena.net:** bailarako berriak, blog zerbitzuak... - **Banketxeko** tramiteak... - **Udalarekin** kontsultak...

- **Hezkuntza:** matrikulazioak, noten kontsulta... - **Aisialdia:** ekitaldietarako sarrerak... - **Erosketak** interneten...

Informazio gehiagorako, deitu telefono honetara: 943 79 81 91 (Kelnara)

Seinalea jaso dezaketen auzoak: **Aramaio** (Untzilla, Azkoaga, Barajuen, Gureia, Zabola, Arexola, Etxaguen eta Gantzaga). **Aretxabaleta:** Aozaratz, Oro, Larrino, Izurieta, Galartza, Arkarazo eta Arenaza. **Eskoriatza:** Apotzaga, Mendiola, Bolibar eta Gellao. **Arrasate:** Udala, Bedoña, Garagartza eta Gesalibar. **Leintz-Gatzaga.**

BOTEPRONTUEN

Amaia Fernandez

SOFA LEKU

XABIER URTZELAI

Sofa Lekuko lokala barrixe da (lehengo Aldibi), baiñe Amaia ez da langille barrixe, 18 urte eukenetik dabil-eta horretan. Administrazioe erueten euen lehen, eta baitte mueblik saldu be. Lokal barrixen ehun sofa eukiko daue, gutxienez: "Inportantie da daukatzune erakustie".

Sofak edo mueblik saltzen die hobeto?

Diferentie da. Kontuen euki biher da sofa bat 10 urtien amortizate dauela. Etxien gehixen ibiltten doun gauzetako bat sofak izeten die, eta baitte lehenau estropeetan dienak be. Horregaittik saltzen die sofa gehixau.

Zelako sofak saltzen dozue gehixen?

Aspaldixen hankendako respalduek dauken sofak saltzen die ondo. Normala dan moduen, jentiek komodidadie topetan dau.

Lagun bat ibilli da egunotan umiendako habitaziñuek ikusten. Zortzi milla euro balixo euen habitaziñue gustau jakon.

Ez da prezio desorbitaue. Ikusi egin biherko neuke zelako habitaziñue dan, baiñe kalidadeko mueblik gure dauenak... Baiñe, badauz merkiauek be.

Barakaldo aldien marka ezagun batek denda galanta ipiñi dau. Igarri dozue?

Ezetz esango neuke.

Egon zara?

Ez, astelehenetik zapatara arte egitten dotelako lan. Baiñe, gure dot juen, eta ze saltzen dauen ikusi.

Reportaje baten, beste denda bateko saltzaille batek esaten euen trankil euela. Denda haundi horrek sekule be ez dauela zeuok emuten dozuen atentiñue eskaiñiko.

Eta arrazoi euken. Horreik preziuekin jokaketan daue, baiñe beste dendetan klientieri atentiñu pertsonala eskainetan dutzou, eta jentiek eskertu egitten dau hori. Mueblik edo sofak erostie ez da arropak erostie moduen.

Hortxe dau zeuon alde fuer-



"Sofa bat 10 urtien amortizate dau; asko ibiltten doun gauzie da, eta holan estropeetan die"

tie?

Bai. Atentiñue eta kalidadie. **Españako gobernuiek esan berri dau 30 metro kuadroko etxiek egin biher dauela. Hor mueble gutxi sartzen da.**

Hori astakerixie da. Ez dot esaten 200 metroko etxiek euki biher dienik, baiñe 30 metro... Karabana batzuk tamaño hori daukie.

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Klientiek.

Zerk emuten dutzu begixetan min?

Normalien, hona etorten dien klientiek aholku bille etorten die. Baiñe, ikusten badot klienteren batek produkto baten gaiñien nik

"Ikusten badot klienteren batek neuk baiño gehixau dakixela, sutan jarten naz"

baiño gehixau dakixela, sutan jarten naz. Ondo jakin biher dot ze saltzen doten, eta produktue ondo ezagutu.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Ziniiek, eta lasai-lasai egoteko tabernak. Danetan egoten da musike oso altu.

Eta, ze dauko ona?

Herri bat izeteko, nahiko ondo dauela.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Flashdance / Isabel Allenden liburuek gustetan jat / Kantautore bat: Luis Miguel.

Kapritxo bat.

Ez naz bape kapritxosie.

NIREBIDAIAHURA/ Maite eta Mainer

Venezuelara / 2005eko urtarriletik otsailera arte

O rain dela hilabete gutxi egon dira Maite San Vicente eta Mainer Donnay Venezuelan, Maracaibo hirian. Arrasateko bi lagunak Haur Hezikuntzako ikasketak egiten dabilta, eta bi hilabeteko praktikak etxean edo etxetik kanpo egin erabakitzerakoan, ez zuten asko pentsatu behar izan: "Kubara joatea zen nire lehentasuna, baina Venezuela tokatu zitzaidan, eta esperientzia oso aberasgarria izan da", esan digu Maitek.

Mainerrek eta Maitek bi hilabete egin dituzte klaseak ematen: "Beste eskoletako irakasleekin harreman oso ona izan dugu, baina gurekin zeuden irakasleekin ez genuen zorte handirik izan. Oso hotzak ziren, bai gurekin eta baita umeekin ere; inoiz ez genituen umeekin jolasten ikusi". Hasieran, beldur apur batekin ibili zirela aitortu digute: "Arratsaldeko seietaik aurrera kalean ez ibiltzeko esan ziguten, eta egia da gure etxea ez zegoela hiriko lekuri onenean. Aurrealdean geneukan eraikinean *huelepega*-k bizi ziren, kola usainduz kolokatzen den jendea. Penagarria zen, gehienak gazteak ziren-eta".

Euskal Herritik joandako sei lagun zeuden etxean. Goizetan ematen zituzten klaseak, eta arratsaldetan hirian ibiltzen ziren, hara eta hona: "Zinera, hiria ezagutzera, futbol partiduren batera... Halaxe igarotzen genituen aste barruko egunak. Futbolarena ikustekoa zen. Gu ez gara oso futbol zaleak, baina partidu bakoitzean sekulako jaia egiten dute". Asteburuek ematen zuten Venezuelako hainbat bazter ezagutzeko aukera: "Asteburu guztietan ahalegindu ginen bidaiaren bat egiten, baina ezin esan zorte larregi izan genuenik. Eguraldiagatik ez bazen, gure kontura barre egin gura zuten poliziek egiten genuen topo". Egia esan, amorratzekoa izan behar du Kariberaino joan, eta uholdeak izatea. Hori, baina, datorren astean.

XABIER URTZELAI



"Etxera ekartzeko moduko haurrekin izan ginen".



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 94 79 67 76

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



ETXERATEKO ZOZKETAKO SARI BATZUK, IRABAZLEEN ZAIN

Arrasateko EtXeratek orain dela hilabete egin zuen saldutako egutegiaren zozketa, eta argazkian dagoen *Bonbi* bakarrik azaldu da saria jasotzera. 0036 zenbakia izan zen Kanpanzar jatetxean afari bat irabazi zuena. 1285 zenbakiak, berriz, Iratiko otzara, eta 370 zenbakiak Uarkapeko otzara. Jakin, zenbaki saritua daukazuenok zain daukazuela saria, eta irabazle horiek azaltzen ez badira, berriro egingo dutela zozketa. Horrekin batera, EtXeratek eskerrak eman gura dizkie egutegiak erosi dituztenei, eta baita sariak eman dituztenei ere. Hala ere, dena ez da ona: norbaitek Portaloian dauden presoek argazkien ondoan jarritako panela lapurtu duelako. Lapurtu duena garaiz dago panela itzultzeko.



ARGAZKIKO ZORTZI ERRETIRATUAK OMENDU ZITUZTEN ASTEBURUAN, ALTAMIRAKO JAIETAN

Argazkikoak Asun Zurita, Cristina Azurmendi, Isidra de la Calle, Julia Posadas, Nicolasa Madinabeitia, Jose Mari Telleria, Candido Hernandez eta Virgilio Montero dira. Eurak dira asteburuan Altamirako jaietan omendu zituzten erretiratuak, eta eurena izan zen ekitaldi hunkigarriena. Guztiak dira 70 eta 80 urte bitartekoak, eta auzoko plazatxoan egin zieten ondo merezi

duten omenalditxo. Bistan da jaietan eguraldiak ez ziela larregi lagundu, baina euripean izan bazen ere, Altamirakoek ez zuten atzera egin eta jaiak ederto ospatu zituzten. Hantxe izan ziren gaztetxoak, euredako prestatu zituzten jokoetan buru-belarri, eta baita nagusiak ere, egun horietarako ipini zuten taberna berezian, margo lehiaketan, dantzaldian...



ESKERRAK ASEGARCEKOEK EZ DUTEN 'TORIBIO' EZAGUTZEN

Datorren zapatuan, hilak 30, ezkonduko dira *Toribio* eta Aitziber, eta joan den asteburuan egin zioten *Toribio*-ri koadrilakoek ezkon aurreko bazkaria. Beno, bazkaria baino asteburu-pasa egin zuten. Goizean, Eroskira bidali zuten erosketak egitera, eta pilotari jantzita zegoela, Iturripen *Urria* pilotari ohiaren kontra neurtu behar izan zituen indarrak. Gero, erositakoarekin hamaiketako egin eta Hernanira joan ziren, Olaizolarren sagardotegira. Hantxe elkartu ziren Asierrekin, eta profesionalak ondo eutsi zuen horma-bikoa. Hurrengo egunean Donostian jarraitu zuten parrandarekin. Eskerrak *Toribio* ez den pilotari; koadrila horrekin ez dago-eta finalera iristerik! Eta ahaztu gabe, koadrilakoek partetik, zorionak bikote!!!

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

**PUB
HAIZEA**



GUREGAIK/ BERTSO UDALEKUAK

Jolasteaz eta ondo pasatzeaz gain, bertsoalaritza gertutik ezagutzeko aukera

IKER BARANDIARAN

AEDk eta Txatxilipurdik bertso udalekuak antolatu dituzte. Uztailaren 14tik 21era egingo dituzte Oatza baserrian (Garaion), eta plaza mugatuak daude. Azpimarratu dute ez dutela eskolarik emango.

Aspalditik dator egitasmoa, eta aurten abian jarri dute. Txatxilipurdik aspalditik antolatzen ditu udalekuak urtero, eta aurten AEDrekin lankidetzan bertso eskolak egingo dituzte. Hala ere, Txatxilipurdik aisialdirako beste hainbat ekimen egingo ditu uztailan, jakina.

Bertso udalekuak antolatzerako orduan zeresan handia izan du AEDk abian jarritako Leintz Bertso Eskolak. Iaz gazteei bertsoalaritzaren gaineko eskolak ematen hasi ziren, eta konturatu ziren garrantzitsua dela gazte-xoei bertsoalaritza zer den erakustea.

JOLASAK EGINGO DITUZTE, EZ ESKOLAK Antolatzaileek azpimarratu gura izan dute uztailko udaleku horietan ez dituztela bertsoalaritzaren gaineko eskolak emango. "Beste edozein udalekutan egiten dituzten gauza berdinak egingo ditugu: jolasak, irteerak... Ez ditugu eskolak emango. Horren ordez,

bertsoalaritzak presentzia txikia izango du, ez besterik. Helburua da zaletasuna piztea. Behin hori ezagututa, gura duenak ikasteko aukera izango du", azaldu zigun AEDko kultura arduradun Kepa Lizarralde.

Hain zuzen ere, antolatzaileen asmoa da, ohiko ekintzez gain, bertsoalariren batzuk udalekura bisita egitera gonbidatzea, bertsoen eta errimen gaineko jolas batzuk egitea eta bertso afariaren batzuk antolatzea. Horiek izango dira udaleku horien berezitasun nagusienak.

BERTSOZALETASUNA PIZTEKO PREMIA

Orain dela urte batzuk AEDko Bertso Eskolak ibarreko bertsoalaritzaren gainean hausnarketa sakona egin zuen. Konturatu ziren Leintz ibarrean ez zegoela harrobi handirik, eta egungo gazteek ez dutela bertsoalaritzara hurbiltzeko aukera handirik. Horri konponbidea emateko, hainbat ekimen egitea erabaki zuten, premia handia zen-eta.

Arrazoi horregatik, lehenik eta behin, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan bertso eskolak abian jarri zituzten. Egubakoitzetan ematen dituzte eskolak: Arrasaten, 17:00etan, AEDn; Eskoriatzan, 17:00etan, Axtrokin; eta Aretxabaletan, 19:00etan, Loramendin.



Ohiko udalekuen modukoak izango diren arren, bertso afariak eta errimen gaineko jolasak egingo dituzte, besteak beste.

Horrez gain, gaztetxoak bertsoalaritzara hurbiltzeko udalekuak egingo dituzte, Txatxilipurdirekin batera. Ekimen hori Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako

neska-mutilei zuzenduta dago, eta uztailaren 14tik 21era egingo dute Garaioako Oatza baserrian.

Matrikula 180 eurokoa da, eta interesatuek lehenbailehen eman

beharko dute izena, plazak mugatuak direlako. Horretarako, Txatxilipurdi elkarteko bulegora jo beharko dute (Pablo Uranga 4) edo telefonoz deitu (943 79 54 46).

Arrasate Lehiaketan sari banaketa

I.B.

Eguaztenean, AEDk antolatutako XVIII. Arrasate Lehiaketan sari banaketa egin zuten Monterronen. 95 lan aurkeztu zituzten: 51 ipuin, 11 poema, 19 bertso-paper eta 14 komiki, hain zuzen ere.

Ipuinetan, 1992an jaiotakoaren artean, akzesitak bakarrik eman dituzte: Garazi Sagastak eta Elene Berebizarrek jaso dituzte. 1991n jaiotakoaren artean, irabazlea Oihane Urzelai izan da, eta bigarrena Karmen Idoate. 1989 eta 1990 artean jaiotakoei dagokienez, irabazlea Imanol Esperesate izan da, eta bigarrena, Hodei Balanzategi. Azkenik, 1988an edo aurretik jaiotakoaren artean, txapelduna Jone Sagasta izan da, eta haren ostean, Ahinitze Errasti.

Poesian bi kategoria bereizi dituzte: 1989 eta 1990 bitartean jaiotakoei dagokienez, 1. go saria hutsik gelditu da, eta bigarrena


Maite Gonzalez eta Oihane Altunak eskuratu dute. 1989 edo aurretik jaiotakoaren artean, irabazlea Ahinitze Errasti da, eta bigarren saria hutsik utzi dute.

Bertsopaperetan hiru kategoria bereizi dituzte, baina 1988an edo aurretik jaiotako lagunei dagokiena hutsik gelditu da. 1991n edo beranduago jaiotakoetatik Lore Mar Barrutia izan da txapelduna, eta Jone Agirregabiria izan da bigarrena. 1989 eta 1990 artean jaiotakoaren artean, herriz, lehengo saria Olatz Ezpeletak eta Garazi Azkoitiak jaso dute, eta bigarrena Irati Egiak.


Komikietan hiru kategoria bereizi dituzte: 1991n edo beranduago jaiotakoetatik Olaia Zabalo izan da txapelduna, eta bigarren saria Iñigo Merino eta Ane Herreok jaso dute. 1989 eta 1990 bitartekoaren artean 1. go saria hutsik gelditu da, eta bigarrena Asier Fernandezek jaso du. 1988an edo aurretik jaiotako txapeldunak: Danel Iriarte eta Unai Azkarate.



Argazkian, azken edizio honetako txapeldunak, poz-pez, sari banaketan.

The background of the advertisement is a vibrant, repeating pattern of stylized flowers in yellow, pink, and blue. Scattered throughout this pattern are several vintage cars from the 1950s and 60s, including a white Fiat 500, a dark blue convertible, a light blue sedan, and a white hatchback. The cars are positioned at various angles, some appearing to be in motion.

UDABERRIA ODOL BERRIAREN ITURRIA BALIA ITZAZU GURE ESKAINTZA BEREZIAK!

 Gure eskaintza bereziaz gain, PICNIC-eko burusi bat oparituko dizugu, soilik aurrerakontua eskatzeagatik*



Hurbilen duzun
sukurtsalean
itxaroten
zaitugu



 **LAGUN ARO**
SEGUROS - ASEGURUAK

Beti zugan pentsatzen

www.seguroslogunaro.com

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein hamarkadetan eraiki zuten Iturripeko kiroldegia? Arrastoa: Eskola Politeknikoarekin batera eraiki zuten.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN** ARRASATE PRESSERA!

Scottex komuneko papera
12 rollo + 4 doan

2,90€ 483 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

J.ANTONIA ERIZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, J. Antonia!
Galderen erantzun zuzena:
Norte Garajea, Uribetxeberria aroztegia eta iltze lantegi bat.

ERRETRATUZAHARRA

Mondra futbol talde gaztea Iturripen

Futbola, eta zehazki, Mondragon Club de Futbol taldea izango dugu segidan berbagai. Orain-go astean utzi diguten argazkia herriko futbol taldearen aurreneko urtean atera zuten. Hain justu ere, Mondrako talde gaztea eratu zuten urtekoa da: 1965ekoa.

Honako hauek dira Mondrak izan zituen aurreneko jokalariaik, zutik ezkerretik hasita: Etxabe, Arizabaleta, Ramos, Inda, Idigoras eta atezainez jantzita, Arana Moral. Eta behean, ezkerretik hasita, honako hauek: Urtzelai, Sagasta, Aranbarri, Beitia eta Larrauri.

Argazkian agertu ez arren, Divino II.a izan zen sasoi hartan taldeko entrenatzaile. Masajista lanak, berriz, Castor Uribe egiten zituen. Hari zegokion mantenuarekin lotutako eginbehar guztiak egitea ere.

Iturripeko futbol-zelaian dago aterata argazkia.

Gure berriemaileak kontaktu digunez, probintzia mailako txapelketan jokatu zuen Mondra taldeak



aurreneko urtean. Kontatu digu, era berean, Mondra taldea sortu baino lehen, Arrasaten bazela beste futbol-talde bat: UCEA. Cerrajerako futbol taldea zen hura.

Mondra sortu zenean, hasieran behintzat, azpiegitura aldetik justu samar ibiltzen zirela ere esan digu.

Esaterako, aldagelak eta dutxak justu justu izaten zituztela. Kirol-jantziei-eta dagokienez, berriz, bigarren eskukoak erabiltzen zituztela azaldu digu.

Bestalde, esan beharra dago argazkian azaltzen diren jokalaria horietako batzuek ezagunak egin zirela geroago; esaterako, Sagastak-eta

Realean jokatu zuten eta Madrilen jokatu zuenik ere bada argazkian (Larrauri, esaterako).

Argazkia eta informazioa: Jose Ramon Urtzelai
Urtea: 1965.



SAIZAR
Sagardo Naturala

Distribuciones
GORBEA

SAIZAR sagardoaren banatzaile ofiziala. Pol. Ind. Kataide · 20.500 ARRASATE - Tel. 943 771 417

www.sidrassaizar.com



 **aralar**

Debagoiendarroi

ESKERRIK ASKO

Zuen babesari zor diogu gure lana

Aro berria, bide berriak

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a

377. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

ARRITXU OLIDEN/ALKATEA

“Tranbiaren ibilbidea erreka aldera aldatzeko proposamena egin diogu Eusko Jaurlaritzari”

MIRARI ALTUBE

Tranbiaren ibilbidea aldatzea erabaki du Udalak, eta beste bat proposatu dio Eusko Jaurlaritzari. Otalora, Durana eta Mitarte kaleetatik pasatu beharrean Lausitta, Belorrieta eta Nafarroatik pasatuko da horren arabera.

Zergatik erabaki du Udalak beste ibilbide bat proposatzea tranbiarendako?

Eusko Jaurlaritzarekin lehen adostutako ibilbidearekin herria hipotekatuta gelditzen zela ikusten genuen. Herri erdi-erditik pasatzen denez gure mugitzeko tartea erabat murriztuta geratuko zelako susmoa hartu genuen. Gainera, herria errekararen beste aldera handitu egingo denez, hemendik urte batzuetara tranbiarendako lekua egiteko aukera aprobetxatzea erabaki genuen.

Zuen proposamenaren arabera nondik pasatuko da tranbia?

Ibilbidea guztiz aldatu dugu. Arrasatetik badator Tubos lantegi ostera sartuko da. Hemen saihesbidea egingo dugu Aramaioko errepidearekin bat egiteko, eta hori aprobetxatuta tranbia ere hortik joango da. Gero, erreka eta Lausitta artetik pasatuko litzateke, eta Belorrieta auzo hasieraraino errekararen beste aldetik joango da. Belorrietatik, Nafarroa kalera eta Araba ibilbidera etorriko litzateke Eskoriatzarantz joateko.



Herritarrek ikusgai izango dute ibilbide hori?

Ez, oraindik ezin delako esan aldaketa onartuta dagoenik; alegazioa besterik ez da. Hori bai, ale-

gazioa aurkeztu aurretik Garraio Sailera joan ginen gure proposamena aurkeztera. Eskema bat besterik ez zen gurea, ez da Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako

proiektua, eta sakonago aztertuko zutela erantzun ziguten.

Bideragarria izango da, ez?

Bai, bai, Hirigintza Sailak egin du, eta proposatutako kalee-

tan lekurik izango duen edo ez ondo begiratuta. Badaude puntu batzuk nahiko estuak, baina pasatzeko arazorik ez luke izango. Ez dugu zehaztu geltokiak non izango dituen, baina proposatutako bideragarria izango dela bai.

Durana kaletik pasatu behar zelako kezatu ziren herritarrak. Uste duzu ibilbide honekin konforme izango direla?


Herritar talde batek, zazpi laguneko talde batek, idatzi ta bidali zidan lehenengo, eta gero niregana etorri ziren tranbiaren ibilbidea berriro aztertzeke eskatuz. Talde honi erakutsi nion ibilbide berria eta konforme geratu ziren. Gainerakoek, ez dakit zer esango duten.

2007an izango genuela tranbia esaten zuten lehen; zuen proposamenak lanak atzeratu egingo ditu?

Ez dauka zertan, baina ikusi egin behar alegazioak noiz erantzuten dituzten. Hauteskundeak pasatu ostean gobernua erabaki arte itxaron beharko dugu. Ez gutxienez erantzunak hori baino lehen etortzen zaizkigun, hau da orain arte egon den gobernuaren ematen dizkigun.

Ibilbide berriarekin aurrera egitea erabakiko balu Eusko Jaurlaritzak berriro jarraituko luke proiektua jende aurrerakoa alegazioak aurkezteko?

Ez, onartuz gero ibilbidea horixe izango litzateke, eta ez litzateke alegazioak aurkezteko eperik egongo.



EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 23
FRAILE, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99*

DOMEKA, 24
FRAILE, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltzgia 943 79 21 68
Gizarte laguntzaila 943 71 18 62
Industrialdea 943 79 62 80
Institua 943 79 79 00
Kiral etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Gazteria saila 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 934 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola 943 71 21 18
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzailak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Ez dago mezarik.

MENDIOLA
Domeketan: 11:30 (Otoitzaldia bakarrik)

GELAO
Ez dago mezarik.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

EAJ-EAk jaso zituen boto gehien, baina EHAK-k eta PSE-EEk egin zuten gora

M.A.

EAJ-EA koalizioa nagusitu zen Aretxabaletan Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan (1.553 boto), baina orain lau urte baino ia 650 boto gutxiago jaso zituen. Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunistak (909 boto) eta PSE-EEk (534 boto) gora egin zuten.

Lasaitasuna izan zen nagusi domekan gurean. Herritarrak geratu barik hurreratu ziren Kurtzebarri eskolara botoa ematera, eta jende gehien eguerdi partean ibili zen. Gizon nagusi bat jausi egin zen eskolako eskaileratan eta txakur bat barrura sartu eta atera ezinik ibili ziren, baina gainerakoan ez zen izan ezustekorik.

EAJ-EA GARAILE BOTOAK GALDUTA

Botoa ematera joateko deia 5.262 herritarrek zeukaten, eta 3.810 hurreratu ziren Kurtzebarri eskolara, hau da, %72,4. Hortaz, orain lau urte baino herritar gehiago geratu zen botoa eman barik, abstentzioa %27,6koa izan baitzen. Hala ere, ez zen izan Debagoieneko handiena, Eskoriatzan %33,3 izan zuten eta.

EAJ-EA koalizioa nagusitu zen gurean 1.553 boto jasota. Hala eta guztiz, 647 boto galdu zituen, ibarreko gainerako herrietan gertatu bezala. Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunistak 909 boto jaso zituen, orain lau urte EH taldeak jasotakoak baino 66 gehiago. Boto kopuruan gora egin zuen beste talde bat PSE-EE izan zen. 534 jaso zituen oraingoan, 9 gehiago hain zuten.

Aralar alderdiak eta Partido Popularrak bestalde, behera egin zuten domekan. Aralarren kasuan, Batzar Nagusietako hauteskondeekin alderatu behar dira emaitzak, orain lau urte oraindik sortu barik zegoelako. 288 boto jaso zituen oraingoan, eta 2003an 499. PPK 266 jaso zituen, orain lau urte baino 196 boto gutxiago. Ezker Batua-Berdeak, taldeak, bukatzeko, mantendu egin du boto kopurua; 193 boto jaso zituen domekan.


Aretxabaletako lau ataletan jasotako botoak aztertuz gero antzeko konparaketa egitea lortuko dugu, eta Debagoieneko emaitzekin bat dator: EAJ-EA koalizioa garaile baina boto asko galduta, EAHK-k nabarmen gora, eta PSE-EEk ere boto kopuru handiagoa lortu du.

*Abstentzioa
%27,6koa izan zen,
baina ez zen izan
Debagoieneko
handiena*

*EHAK-k 909 boto
jaso zituen
domekan, orain lau
urte EH taldeak
baino 66 gehiago*



EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2005



EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAKO BOTOEN BANAKETA ATALEZ ATAL

	1-A	1-B	2-A	2-B	3-A	3-B	4
1. atala.....Bedarreta, Elkano, Guridi, Iparragirre, Larrin plaza, Murubide, Otalora, Santa Kurtz eta Sarasate	232	178	298	207	261	165	212
2. atala.....Andramari, Basabe bidea, Durana, Errekarbarren, Herriko plaza, Ilargi plaza, Lausitta eta Mitarte	96	95	192	135	139	114	138
3. atala.....Araba ibilbidea, Aralar, Basabe pol., Belorrieta auzoa, Bizkaia, Gipuzkoa plaza, Gorbeia, Loramendi, Nafarroa eta Zاراia	82	89	63	71	99	93	37
4. atala.....Bainetxe, Markole, Solohandi eta auzoak	46	42	50	49	39	21	19
EAJ-EA	232	178	298	207	261	165	212
EHAK	96	95	192	135	139	114	138
ARALAR	43	25	62	39	41	50	28
PSE-EE	82	89	63	71	99	93	37
PP	46	42	50	49	39	21	19
EB-BERDEAK	28	23	34	32	28	19	29
BESTEAK	5	6	11	14	13	8	11

Karlos
Harakina
Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETA

Zenbaki
• Kontabilitatea
• Fiskalitatea
• Lana
• Juridikoa
Aholkularitza
Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68

Martin
erloju-denda
Bere bezeroen zerbitzura
Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia
Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Euskal mitologia berbagai Literatura Topaketetan

M.A.

Apirilaren 25ean hasi eta astebez Literatura Topaketak egingo dituzte Kurtzebarri eskolan. Euskal mitologia izango dute ardatz, eta *Arbasoen argi iraunkorra* laburmetraia emango dute.

Urtero antolatzen ditu Kurtzebarri eskolak Literatura Topaketak. Irakurzaletasuna bultzatzea eta hainbat literatura jenerorekiko sentikortasuna garatzea dute helburu. Ikasleak izan arren protagonista, gurasoei eta herritarrei zuzendutako ekitaldiak ere egingo dituzte.


LABURMETRAIA ABIAPUNTU

Euskal mitologia hautatu dute aurtengo topaketen ardatz. Abiapuntua Arrate Fernandez zinegile andoaindarrak egindako laburmetraia izango da: *Arbasoen argi iraunkorra*. Muru mendiaren eta Urkulu urtegiaren inguruan grabatutako laburmetraia da.

Astlehenean, apirilak 25, emango dute laburmetraia. Lehenengo ikasleek ikusiko dute, eta 18:30ean gurasoendako emanaldia izango da. Arrate Fernandez bera etorriko da gainera, laburmetraia gainean berba egiteko. Zinegilea, soziologoa eta euskal gaietan aditua da Arrate.

KONDAIRAK ETA IRTEERAK

Laburmetraian agertzen diren tokiak bertatik bertara ikustera joango dira ikasleak. Batzuk Galtartza, beste batzuk Murura eta



Urtero moduan Irakur-Maratoiak emango die bukaera Literatura Topaketei.

Urkulura ere bai. Izan ere, leku horietan kokatutako ipuin grabaketak egin dituzte eurek ere. Txikienek, bestalde, sorgin erraldoia

gertatu dute, eta nagusiek euskal mitologian oinarritutako kondairak kontatuko dizkiete.

IRAKUR MARATOIA

Asteari bukaera emateko XIV. Irakur Maratoia egingo dute eguean, hilaren 28an, eskolako areto nagusian. Horren ostean, guraso talde batek, Literatura Topaketen bukaera ekitaldia eskainiko die bertaratutako guztiei; 18:00etan izango da. Egindako lana eta ahalegina eskertu gura dizkie eskolak guraso hauei guztiei.

*Murun eta Urkulun
grabatutako
laburmetraia da
'Arbasoen argi
iraunkorra'*

LABUR

Otoitz pertsonala lantzeko topaketak egingo dituzte maiatzaren 7an hasita zapaturo

Leintz Pastoral Barrutiak otoitz pertsonala lantzen hasteko topaketak antolatu ditu. Maiatzaren 7an hasi eta zapaturo emango dituzte saioak, 18:00etatik 19:30era, Aretxabaletako parrokiako lokaltan, ekainaren 18a bitartean. Topaketak abadeek zein laikoek zuzenduko dituzte, eta euskaraz izango dira. Izena emateko sakristian edo parrokiako bulegora (Herriko plazan) jo; edo bestela ondorengo helbidera bidali izen-abizena eta telefono zenbakia: gazte.kristauak@euskalerrria.org.

Bestalde, Lourdesera erromesaldia antolatu du elizbarrutiak. Aurten, maiatzaren 21ean eta 22an egingo dute, eta joan gura dutenak maiatzaren 7a baino lehen eman behar dute izena sakristian.

Bertso jaialdia egingo dute apirilaren 30ean kirol etxean

M.A.

Bertso jaialdia antolatu dute apirilaren 30erako. *Luberri Bertso Lurra Berritzen* proiektuan sartu da Udala, eta lau bertsolari etorriko dira. Kirol etxean izango da, 22:30ean.

Azken urteotan ez da bertso jaialdirik izan herrian. Hori berreskuratu guran *Luberri Bertso Lurra Berritzen* izena duen proiektuan sartu da Udala. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Euskadiko Kutxak elkarlanean antolatutako proiektua da, eta Lanku Bertso Zerbitzuak kudeatzen du.

LAU BERTSOLARI

Apirilaren 30ean, zapatua, izango da jaialdia, 22:30ean, kirol etxean. Lau bertsolari etorriko dira: Igor Elortza, Amets Arzallus,

Ekaitz Goikoetxea eta Ainhoa Agirreazaldegia. Gai-jartzaile lanetan Egoitz Aizpuru ibiliko da.

Igor Elortza durangarra da eta abenduan 4. aldiz irabazi zuen Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Amets Arzallus, bestalde, Herriko jaio zen, Lapurdin, eta honek ere 4 aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Ekaitz Goikoetxea eta Ainhoa Agirreazaldegia, osterara, gipuzkoarrrak dira, lehenengoa beasaindarra eta bigarrena bergararra.

BERTSOAK ENTZUTEKO OHITURA

Xabier Sarasua kultura zinegilearen esanetan, bertso saioak antolatzeko ohitura berreskuratu gura dute: "Lehen gustura josten ginen bertsolariak entzuteko eta aspaldian ez dugu aukeratu izan herrian". Hortaz, hementxe aurrera ere izango dute jartzea pena bertso jaialdiek.

Lie

LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Jou Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA

943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

*BENGOA
URDAITEGIA*

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko



ATREBENTZIAEZPADA/ UDAko preferenteko taldie azken bigarren dau. Ze biher dau irabazten hasteko?



ANA MARI ARETXAGA
Langillie



FELIX KORTABARRIA
Jubilaue



MARI KARMEN ETXEANDIA
Langillie



JON KEPA ZUBILLAGA
Langillie



OSANE AIASTUI
Langillie



LUIS CORRES
Langillie

Esne gutxi, edo ez dakit zer daukien jokalarixek. Ure emun biherrien deskantzuen kafe emun biherko dutzie, lengo moduen. Nik ez dakit zer daukien, baiñe zeozzerren biherrien daz.

Moral faltie edo beste disziplinan baten biherria izen leike. Realai moduen morala falta jakola UDAi be. Gero arbitruiek be halakuek egoten die... Bestela partiduetara jente asko faten da.

Jokalarixen gauzie dala pentsetan dot. Eurek jarten dauien ilusiñuen eta goguen egongo da gauzie. Jente asko faten da partiduek ikusten, hortaz, ez dot uste animo arazue danik.

Egixe da, baiñe antzeko puntuekin talde asko daz. Ez dakit ba zer biher dauien irabazteko. Talde onak izendako asko dabitz behien: Anaitasuna, Bergara... hortaz, ez da hain rarue.

Ez dakit jente asko faten dan partiduek ikusten, baiñe ahal dan danok fateko deialdi bat egin leike. Anbientie egonez gero neu be fango nitzake, eta ea hola zeozzer lortzen douen.

Ez dot larrei jarraiketan, baiñe partiduek ikustera jente gehixau fatiek lagunduko dutzie jokalarixei. Iguel nekatute ibilliko die, edo beste planteamentu baten biherrien daz.

TXALOAKETATXISTUAK




TXISTUAK ISUNA GAZTELERAZ Hiru udaltzain ditugu momentuz herrian, eta hirurak dira gai isun bat euskaraz betetzeko. Hala ere, gaztelera idatzita jaso zuen herritar batek oraintsu. Gaztelera idatzita zegoelako azalpen eske joan, eta ez zeukala halako garrantzirik erantzun zion udaltzainak. Euskaraz bizitzeak eguneroko lanetan erabiltzea esan gura du; has gaitezen guztiok erabiltzen. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Zuberoari laguntzeko lan taldea osatu zuten

Zuberoa Garatzen Topagunea sortu zuten Euskal Herriko beste hainbat herritar bezala. Helburua Zuberoa herritarren artean ezagutaraztea zen eta laguntzeko dirua batzea. Egitasmoaren aurkezpena apirilean egin zuten, eta ondoren hainbat ekitaldi antolatu zituzten.



ASTEKODATUA

1.452

HERRITAR EZ ZIREN JOAN DOMEKAN BOZKATZERA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren joan zen domekan. 5.262 aretxabaletarrek zeukaten botoa ematera joateko deia, baina 1.452 lagunek ez joatea erabaki zuten, %27,6ak.

BESTEKEESANA

Beti gura duzu hasierako hamaikakoan egotea, eta ahal den denbora gehien jokatzea, baina entrenatzailea da erabakiak hartzen dituen. Nire asmoa da egunero-egunero lan egitea orain arte bezala, dudan guztia ematea entrenamendu saio bakoitzean eta Betisen aurka berriro ere titular izatea.

Egia esateko, denboraldi zaila izan da niretako. Ez ditut aukera asko izan, baina izan ditudan ondo aprobetxatzen nabilela uste dut. Garrantzitsuak izan diren golak sartuta lagundu diot taldeari, eta pozik nago.

Beti gura duzu gehiago jokatzea. Orain arte egindakoa ez da nahikoa. Ea hurrengo asteburuan Betisen aurka jokatzerik dudan. Bestela, ez dut etsi behar; eta Zubietan lanean jarraitu behar dut beste aukera bat izateko.

JOSE JAVIER BARKERO
'El Diario Vasco'/05-04-18

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Ez dut, ez, nik lurrik

Albisteak hain ugari eta azkar gertatzen eta pasatzen diren garai honetan ez da erraza gai konkretu bati heltzea eta horretaz zerbait esatea, gaurkotasuna berehala galtzen baitu. Gainera, une honetan, albiste bereziak dauzkagu: Erroma (Aita Santuaren aukeraketa), politika (hauteskundeen emaitza eta ondorioak), giza-mailakoak (etxe txikiak, etorkinak, biolentzia), e.a. Errealitate guztiak elkartzeko gai bat bada: emakumearen egoera, hain zuzen.

Hauteskundeak direla eta partiduak azaltzen zituzten zerrendak begiratzen aritu naiz; Elizak gai honi nola egingo dion aurre pentsatzen ari naiz. Orain dela gutxi entzundako albiste batek, enpresetan goi mailako postuetan emakumeak jarri edota sartzeagatik dirulaguntza izango dutela jakiteak, hausnarketa egitera narama.

Honek guztiak, eta gehiagok, zer pentsatua ematen dit.

Lehenengo mundukoak garela esatera ausartzen garen honetan, beraz aurreratuak, oinarritzko eta sakoneko gogoeta eta aldaketak egin beharra dauzkagu. Zergatik sartu emakumeak zerrendetan? Zergatik eman enpresei sari bat emakumeak izateagatik?

"Zergatik eman enpresei sari bat emakumeak izateagatik? Zergatik izan Elizan gizonetakoak lehen mailakoak?"

Zergatik izan Elizan gizonetakoak lehen mailakoak? Beldur naiz ez ote den dena kanpora itxura jakina azaltzeko, eta ez, konbentzimendu baten ondorioa, hau da, pertsona baten eskubideak onartzea.

Emakumeok gizartean, Elizan eta politikan lurra jorratzen, bidea egiten, jarraitu beharko dugu. Ziur naiz, gaur egun mundu guztian zehar ikusten eta ezagutzen ari garen hainbat egoera gordin desagertuko lirakeela emakumea, berez, eta ez gizonaren itzalean, pertsona dela onartuko balitz. Hona hemen, bada, gizarteak, Elizak, gizonetakoak eta guk geuk ere, emakumeok, eskuartean daukagun erronka.

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a / 205. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Udalak hartu du Apotzagako bide berria egiteko ardura

IKER BARANDIARAN

Udalak erabaki du Apotzagako auzotarrek duten arazoari irtenbidea ematea. Autobideko lanak direla eta, kamioien eta makinen trafiko handia dute auzoko bidean, eta auzotarrak oso haserre daude. Martitzenean hasi zen Udala bide alternatiboa egiten.

Apotzagako auzotarrek bazekiten autobidearen lanek eguneroko bizimoduan eragingo zirela. Baina, ez zuten uste halako eragozpenak sorraraziko zizkietenik. Orain dela hilabete inguru hasi ziren autobideko lanak eta, egia esanda, hainbat eragilek auzotarraren egunerokotasunari kalte egin diete: autobideak Apotzagarako bidea zeharkatuko du, apur bat beherago autobidearen sarrera egingo dute, eta Apotzagan hondakindegia ipini dute. Horrek guztiak izugarritzeko kamioi eta makinen mugimendua eragin du, eta Apotzagarako bidean igarri dute. Hain zuzen ere, egunen baten bost bat ordutan izan dute errepidea moztuta.

Arazo horrekin haserre, hilaren 13an, Apotzagako eta Eskoriatzako beste elizate batzuetako 50 bat lagunek bidea itxi zuten 07:30etik 12:00etara bitartean. Euren helburua protesta egitea zen. Hain zuzen ere, euren esanetan, autobideko lanak egiten hasi baino lehenago Bidegik -Aldundiko erakundeak- bide alternatibo bat egingo zuela agindu zien, baina "ez du emandako hitza bete".

BIDEGIRI DIRUZ LAGUNTZEKO ESKATU
Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoaren esanetan, orain dela bizpahiru aste Bidegik bide alternatiboa egiteari ezetza eman zion, diru kostuagatik eta aurreikusitakoaren arabera Apotzaetxebarriruntz doan bide horretan ere autobideko lanak egingo dituztelako.

Apotzagako auzotarren protesten ondorioz, Udalak beste negoziazio-saiakera batzuk egin ditu. Baina oraindik Bidegik erantzunik eman ez dionez eta arazoa luza ez dadin, Udalak berak lanak egitea erabaki du.



Apotzagako auzotarrek bidea moztu zuten joan den astean.

LANAK BI FASETAN

Bide berri hori egin bezain laster eta autobideko lanek irauten duten bitartean, hori erabili beharko dute auzotarrek. Marti-

tzenean hasi ziren lan horiek egiten eta bi fase izango dituzte: bata, Apotzagako kanposantutik San Bernabeko basilizara joango den bidea egiteko. Eta bestea, Apotzaetxebarritik barrena, Aretxabaletako udalerrian sartuko dena.

Juan Carlos Bengoaren usteetan, lanak bi astetan bukatuta egon daitezke. "Lehenengo fasea berehala bukatuko dugu. Lana pixka bat atzeratuko duena da Apotzaetxebarrin eta bide batez Aretxabaletako udalerrian lanak egin ahal izateko baimenak eskatzeko prozedura".

Horrez gain, Juan Carlos Bengo Bidegirekin harremanetan dago, Udalak egingo duen gastua Aldundiak ere ordain dezan. Dena dela, Bengoak uste du lanak egiten dabilen Ferrovial Sobrino enpresak ere kostuen zati bat ordaindu beharko lukeela. "Enpresa horri ere interesatzen zaio arazoari konponbidea aurkitzea, eta hala, modu erosoagoan lan egitea", azpimarratu zuen alkateak.

Bidegiren erantzunik ezean, eta arazoa luza ez dadin, Udala hasi da lan hori egiten aste honetan

Bide alternatiboa bukatzeko ezinbestekoa da Aretxabaletako Udalaren baimena

Saihesbidean lanak egiten dabilta erortze arriskuagatik

I.B.

Azkeneko bi asteotan Eskoriatzako saihsbidearen puntu batean harrizko horma handi bat egiten dabilta, erortze arriskua saihesteko. Aldundia dabil lan hori egiten eta trafikoan geldituak sortzen ditu.

Orain dela bizpahiru aste Aldundia konturatu zen Eskoriatzako saihsbidean, Leintz Gatzagarako noranzkoan tunelera sartu aurretik eskumako aldean, errepideko zati bat erortzen hasia zela. Errepidearen malda eta inklinazioa neurtzeko makina bat jarri zuten, eta jakin zuten puntu horretan trafiko moteleko erreia behera etortzeko arrisku handia zegoela.

Hortaz, Aldundiko langileak harrizko horma handi bat egiten

hasi dira. Eta horren ondorioz lanek irauten duten bitartean errietako batetik ezingo da trafikorik ibili.


LARRIALDIKO ESKU-HARTZEA

Aldundiaren esanetan, larraldiko esku-hartzea egin behar dute. "Epe ertainean saihsbideko puntu hori bere zabalera osoan arriskuan egon zitekeen horregatik lanak berehala hasi ditugu", azaldu ziguten.

Egiten dabilta harrizko horma horrek 45 metroko luze izango du, eta lan hori egiten izateko Mesedeetako Amara egoitzari 550 metro koadroko zatia desjabetu diote. Erretuetuen egoitzaren arduradunak zuzenduen horrekin ados, baina Udalak behartu egin zituen, saihsbideak eragin zezakeen arriskuarengatik.



Lanen ondorioz, geldituak egoten dira saihsbidean.



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Ofiati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

ARETO FUTBOLEKO NORGEHIAGOKA

Bihar, zapatua, ohorezko ligako areto futbol partidua egongo da kiroldegian. Eskoriatzarrek A.D. Elorriagaren kontra jokatu dute, 16:00etan.

SASKIBALOI PARTIDUA, ZAPATUAN

Bihar, zapatua, 2. maila nazionalako saskibaloi taldeak norgehiagoka izango du Portugaleteko P.I. Estekoren kontra. 18:00etan izango da.

GIZA ELIKADURAREN GAINEAN BERBALDIA

Eguaztenez, hilaren 27an, Laura Alutiz dietistak berbaldia egingo du Kultur etxean, 18:30ean. Amus-kak antolatu du.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Bihar, zapatua, lau musika taldek kontzertua egingo dute gaztetxean, 17:30ean: Lost Girls, Agressive Combat, Drakes eta Trastorno Mental. Sarrera 3 euro izango da.

ELKARRIZKETA

ANTONIO REGAÑO/ARETO FUTBOL TALDEKO BIGARREN ENTRENATZAILEA

“Ez dugu taktika berezirik erabili; jokalariek izugarrizko lana egin dute”

IKER BARANDIARAN

Eskoriatzako areto futbol taldeak mailaz igotzea lortu du. Aurreko denboraldian Euskadiko mailara igo ziren, eta aurten beste jauzi bat egin dute. Erroka berriaren aurrean, indartsu eta gogotsu dago taldea.

Orain dela gutxi Euskal Ligara igo zineten, eta orain zuendako ustekabe atsegina izango zen berriro mailaz igotzea.

Ustekabea zelanbait iragarritu zegoen, denboraldi honetan oso emaitza onak izan ditugulako. Puntu guztiak eskuratzea falta zen, eta joan den domekan lortutakoarekin, dagoeneko mailaz igoko garela konfirmatu ziguten.

Zein aldaketa eragingo dizkizue mailaz igotzeak?

Jokoari dagokionez, taldeek maila handiagoa izango dute, eta norgehiagokak biziagoak izango dira. Horrez gain, askoz gastu gehiago izango ditugu, kostu guztiak hirukoiztu egiten direlako: izenemateak, arbitratzeak...


Taldea kanpoko jokalariekin indartzeko asmoa daukazue?

Ez dugu halakorik aztertu. Urtero, irailean, taldera sartu gura dutenei probak egiten dizkiegu. Horrez gain, beste talde bat daukagu bi kategoria beherago, eta hor daukagu harrobia. Gainera, gazte mailako talde bat sortzeko asmoa daukagu.

Baina gaur egungo taldea oso ondo prestatuta dago, eta hainbat talderi aurre egiteko gai gara.

Zein taktika erabili duzue halako emaitzak lortzeko?

Batez ere emaitzak jokalarien lanean oinarritu dira. Izugarrizko lana egin dute, asko entrenatu dute eta partiduetan ere burubelari ibili dira. Dagoeneko talde beteranoa da. Jokalari gehienek 5 urte baino gehiago daramatzate taldean, eta igartzen da taldea sendotuta dagoela.



“Jokalari gehienek 5 urte baino gehiago daramatzate taldean, eta taldea sendotuta dago”

Azkeneko bi urte arrakatsuez gain, zelakoa izan da taldearen ibilbidea?

Taldea sortzean, orain dela 9 urte, hasi nintzen. Ordutik bost aldiz mailaz igotzea lortu dugu. Oraingo igoera baino arrakastuagoa da orain arteko ibilbidea.

“Taldea orain dela 9 urte sortu genuenetik bost aldiz mailaz igotzea lortu dugu”

Zein babes daukazue herrian?

Gero eta handiagoa. Gero eta ikusle gehiago daukagu, eta aurrekoan kiroldegia ia betetzea lortu genuen. Alkatea ere etorri izan da behin baino gehiagotan. Hala jarrai dezatela.

LABUR

Udaltzain eta lurperatzaile lanpostuak

Udalak aditzera eman du 25 lagun aurkeztu direla behinbetiko udaltzain lanpostua betetzeko. Horietatik bi eskoriatzar dira. Bestalde, peoi lurperatzaile lanposturako zortzi lagun aurkeztu dira. Horietatik gehienak herrikoak. Orain probak egin behar dute.

Umeekin liburuak partekatzearen garrantzia berabagait

Eguenean, hilaren 28an, Eskoriatzako bibliotekako haurtxotek honako berbaldia egingo dute: *Helduak umekin liburuak konpartitzearen garrantzia*. 18:30ean izango da, eta Pello Añorgak emango du. Besteak beste, umeen heziketan irakurketak duen garrantzia azalduko dute.


Domekan uretako parkea egingo dute kiroldegian

Etzi, domeka, uretako parkea egingo dute, 16:00etatik 20:00etara. 16:00etatik 17:00etara, 12 urtetik gorakoendako; 17:00etatik 18:00etara, 1etik 4 urte artekoendako, heldu batek lagunduta; eta 19:00etatik 20:00etara, 8 eta 11 urte artekoendako. Bazkideek, 1,5 euro; eta gainontzekoek, 3 euro.

Erretiratuen boluntariotzaren gaineko berbaldia

Martitzenez, hilaren 26an, Nagusilan elkarteak erretiratuen boluntariotzaren gaineko berbaldia egingo du kultura etxean. 17:00etan izango da. Elkarte horren baitan erretiratu batzuek beharra duten erretiratuei laguntza ematen diete. Olazar erretiratuen elkarteak antolatu du.

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure Zerbitzura



FAGOR
Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gustafadul auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko apirilaren 22a / 147. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Asteburu oparoa: bigarren eskuko liburu azoka bihar eta Sagardogileen Eguna etzi

UBANE MADERA

Gaur, barikua hasi eta domekara arte, antzerkia, azoka, sagardogileak... ekitaldi mordoak izango da Aramaion. Batetik, gazteek bigarren eskuko azoka antolatuta dutelako, biharko, zapatua. Bestetik, domekan Sagardogileen Eguna ospatuko dutelako, Txirritola elkartearen eskutik.

Gaur, barikua eta Liburuaren Nazioarteko Egunaren ospakizunen barruan, *Singing euripean* izeneko antzezlanak izango da kultura etxean, 22:00etan hasita. Aretxabaletako Trikilmilu taldeak antzeztuko du. Hiru antzezlek bost pertsonaiak euripean dituzten bizipenak kontatuko dituzte. Beñat Zamalloak eta Gorka Uribeberriak idatzi dute gidoia. Beñat Zamalloa bera, Kattalin Antxia eta Igone Zaloña dira antzezleak.

Bi euro kobratuko dute sarre-
ra. Izan ere, batzen duten dirua, bigarren eskuko liburu azokan batzen dutenarekin batera, Angolara bidaliko dute.

LIBURUEN AZOKAN 300 BAT LIBURU

Hala, bihar egingo dute bigarren eskuko liburu azoka, Aramai-xo Tropikaleko Gazte Asanbladak antolatuta. Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta erabaki zuten azoka egitea. 10:30etik 14:00ak arte izango da zabalik. Herritarrek emandako liburuak ipiniko dituzte salgai, merke-merke: "Bat, bi, hiru, lau edo, asko jota, bost eurotan salduko ditugu, eta gainera, batzuk oso onak dira eta oso egoera onean daude". Hala adierazi digu antolatzaileetako batek, Alex Aginagaldek.

Gaineratu digu euskarazkoak, espainolezkoak zein ingelesezko liburuak izango direla, umeendakoak zein nagusiendakoak.

Gero, saltzen ez dituzten espainolezko liburuak, Kolonbiara bidaliko dituzte. Eta batutako dirua, berriz, Angolara, Beasaingo gobernuz kanpoko Herriak Elkarlanean erakundearen bitartez, han egiten dabilzan proiektuetan laguntzeko. Hain justu ere, erakunde horretako kideak ere



Eguraldiaren beldurrez dira antolatzaileak; edozelan ere, gogora ekarri digute urtero eguraldi oso ona egin diela Sagardogileen Egunean.

izango dira biharko azokan, Angolan egiten dabilzan proiektuen berri ematen. Horrez gainera, bidezko merkataritzan oinarritutako produktuekin (kafea, txokolata...) saltokia ipiniko dute.

BASERRIETAKO SAGARDOA, DOMEKAN

Eta domekan, Sagardogileen Eguna ospatuko dute, Txirritola Euskara Elkartearen eskutik. Azken

*Eguraldiaren
arabera, ekitaldiak
lekuz aldatu
beharko dituzte,
kiroldegira*

orduko ustekaberik ezean, 18 baserritar izango direla jakinarazi digute antolatzaileek. Untzillako Bolinburuko, Salgoko Sagastizabalgo, Iturrietako sagardotegiko, Azkoagako Altzako, Untzillako Mendibitxuko eta beste hainbat eta hainbat baserritako sagardoa izango da edateko, baserritar bakoitzak bere erara eginda. Are gehiago, baserri-

rrak ere hantxe izango dira, eta an egindako sagardoa banatzen Txirritola Euskara Elkartearak dituzten lantziak ipiniko dituzte salgai. Hala ere, azokan bat erositzen gero, nahiz eta sagardo edateko aukera izango da.

Horrez gainera, Aramai-xo zenbait herritarrek egindako sagardoa eta pintxoak erosteko aukera ere izango da.

SAGARDOA ZELAN EGIN ERAKUSTEN
Goizean hasiko da Sagardogileen Eguna, 11:30ean, herriko baserrietan eta trikitilarien eskutik. Handik aurrera, sagardoa edateko aukera izango da. Era berean, sagardoa bera zelan egiten den ikusteko aukera ere izango da. Izan ere, baserrietan erabiltzen duten moduko dolare bat (sagardoa egiteko makina) eramanen dute plazara eta sagardoa hobeto esanda, muztioa egiten dute. Sagardoaren prozesua erakusten duten panelak ere izango direla esan digute Txirritola elkarteak.

Ekitaldietako datu esanguratsuenak:

Singin euripean aretxabaletarren lana antzeztuko dute gaur, barikua, 22:00etan.

300 bat liburu izango dira bigarren eskuko liburu azokan; 1, 2, 3, 4 eta, asko jota, 5 eurotan ipiniko dituzte salgai. Azoka 10:30ean hasiko da, 14:00ak arte.

Beasaingo Herriak Elkarlanean gobernuz kanpoko erakundeak saltokia ipiniko du, bidezko merkataritzako produktuekin.

Ekitaldi guztiak Aramai-xo Tropikaleko Gazte Asanbladak antolatu ditu.

Sagardogileen Egunari dagokionez, Aramaioko 18 baserritako sagardoa edateko aukera izango da, 11:30ean hasita. Lehenengo herriko bertsolariek eta trikitilariak saioa egingo dute.

Herritarrek egindako taloak eta pintxoak ere izango dira. Sagardoa zelan egiten den erakusteko, dolarea eta panel informatiboak ipiniko dituzte.

Txirritola Euskara Elkartek antolatu du hori guztia.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Ariasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zujiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23.

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA, ZAPATUAN

Liburuaren Egunekeo ekitaldiak direla-eta, oraingo asteko barikuko zinema emanaldia zapatuta aldatu dute. *Maria Ilena eres de gracia* filma aukeratu dute. Joshua Marston zuzendariak egindako drama da, 101 minutukoa. Bogotako 17 urteko neska baten gainekoa da; besteak beste, droga kontuekin ere badu zerikusia. Catalina Sandino, Yenny Paola, Guilied Lopez eta Orlando Tobon aktoreek parte hartzen dute.

DOMEKAKO ZINEMA

Oraingo honetan, horren ezaguna den *Alicia en el País de las Maravillas* ipuinean oinarritutako marrazki bizidunen filma emango dute 17:00etako saioan, domekan.

ZAINDARIAREN EGUNA

Datorren egunean, hilak 28, arabarrek San Prudentzio eguna ospatuko dute, zaindariaren eguna. Ohitura denez, leku gehienetsuenetan jai izango dute: udaletxean, liburutegian, ludotekan eta San Martin Eskolan, esaterako.

2004ko likidazioaren arabera, soberakina du Udalak, beraz, jardun positiboa egin du

U.M.

Bake-epaitegia, Iturrosteko etxebizitzak, euskararekin lotutako laguntzak eta Udalaren superabita aztertu zituzten, besteak beste, apirilari dagokion ohiko osoko bilkuran. Superabitari dagokionez, Udalak 132.827,73 euroko soberakina lortu du, arden sor daitezkeen ustekabeei aurre egiteko.

Hemendik aurrera, Zigoitian izango da Zuiako Koadrilako bake-epaitegia. Erabaki hori formalizatzea besterik ez da falta. Hala jakinarazi zuten eguazteko batzarrean. Horrek esan nahi du bake-epaitegiarekin lotutako antolaketa guztia Zigoitian zentralizatuko dutela.

Hain justu ere, bi lagun ipiniko dituzte Zigoitiako bulegoan eta herriz herri ibiliko dira biak, bake-epaitegiarekin lotutako jardunak egiten. Koadrilako dokumentazio guzti-guztia ere Zigoitiako egoitzan gordeko dute.

Bestelako gaien artean, Iturrosten egin behar dituzten etxebizitzekin lotutako puntu bat landu zuten zinegotziek. Burokrazia kontu bat, alegia. Behin



la 11.000 euroko aurrekontua proposatu dute auzoetako jaiak antolatzeko.

hori eginda, orain, Iturrosteko etxebizitzaren gaineko proiektua egin eta aurkeztu ahal izango dute, gero lanak egiten hasteko. Herriko enpresa bat dabil horretan: Promociones Aramaixo.

IA 11.000 EURO AUZOENDAKO

Euskararen aldeko ekimenei eman beharreko dirulaguntzak ere aztertu zituen udalbatzarrek. Horren arabera, 940 euroko

laguntza proposatu zuten, besteak beste, euskararen aldeko jaiendako eta erakundeendako: Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Euskararen Aldeko Kontseilua... Eta beste 10.920 euro Aramaio auzoen artean banatzeko; auzoetako jaiak ospatzeko, hain zuzen ere. Beraz, guztira, 11.860 euroko laguntzak onartzea proposatu zuten Euskara eta Hezkuntza batzordeak.

JARDUN POSITIBOA

Diru kontuekin segituz, 2004ko jardunaren likidazioaren berri ere eman zuten oraingo asteko osoko bilkuran. Hain justu ere, jakinarazi zuten Aramaio Udalak 132.827,73 euroko superabita lortu duela 2004ko ikasturte politikoan. Kopuru garrantzitsua da. Udaleko diruzainak adierazi digunez, aurrekontuan ez dauden gainerako gastuei aurre egiteko erabili ohi da diru hori, ustekabeei aurre egiteko, alegia. Gaineratu digu, iaz, adibidez, soberakin negatiboa izan zuela Udalak. Hala, aurtengo soberakin positiboak erakusten du Udalak asko zaindu duela 2004an gastuen atala. Oro har, 2004an jardun positiboa izan duela erakusten du.

Horrez guztiaz gainera, kultura elkarteekin eta preso senideekin lotutako dirulaguntzen gaineko ordenantza behin betiko onartzeko proposamena mahai gainean izan zuen udalbatzarrek.

EMAITZAK JAKIN EZ

Dena dela, esan beharra dago albistea idaztean, batzarra egin barik zegoela; horrenbestez, ezin izan dugu jakin zeintzuk izan diren zinegotziek hartutako erabakiak.

Urugukoak haserre daude, euren esanetan, Udalak euren lursailean sartu nahi duelako

U.M.

Ika-mika handia dute Azkoagako Urugu baserrikoek Udalarekin eta lurjabe batekin. Baserri aurretik pasatzen zaien bide publikoa dela-eta daude istilutan. Euren jabegoa inbaditza nahi dutela diote. Harriak ipini zituzten lursaila mugatzeko, eta Ertzaintza izan zuten han, harriak kendu nahian.

Urugutik doan bidean aurrera eginez, pareko zelaian baserria egiten dabilta. Eta baserri berri-joateko, hantxe dagoen bide publikoa erabili nahi du lursailaren jabeak, Santi Balantzategik.

Bidea publikoa da. Hala dio azken katastroak. Horrenbestez, Udalaren baimena du erabiltzeko.

Araza zera da: Uruguko enpustetan, publikoa den zatia metro bi eskasekoa da; gainerakoa, euren da. Hala azaldu zigun Enrike Aspek: "Bide publikoa baldin bada, orain dela 50-60 urte gorakoa da; orduan, bide publiko hori izango da lehengo bide publikoen neurrikoa, metro

bi eskasekoa; eta gure etxeak baditu metro bi aurrean gure lur moduan. Ez dut uste inork hori kendu egin beharko ligukenik, batez ere ate nagusiaren aurrean badago".

ERTZAINAK, HARRIAK KENTZERA

Gauzak horrela, harriak ipini zituzten baserri aurrean, euren lurrak zeintzuk diren adierazteko. Eta horregatik izan ziren ertzainak: harriak kentzeko, handik ezin zen-eta autorik pasatu.

Ertzainek egoera aztertu eta erabaki zuten plano katastrala aztertzeraz joan beharko litzatekeela norbait. Gero joan egin ziren, beste ezer egin barik.

SANTI BALANTZATEGIEN IKUSPUNTUA

Baserri berriaren jabeak dago-kionez, esan digu bide hori publiko moduan dagoela katastroan, eta Udalak baimena eman diola etxea egiteko eta bidea erabiltzeko. Horrenbestez, berak ez duela zerikusirik liskarrean, eta Urugukoek Udalarekin konpondu beharko dutela, beraz.

Horren harira, Enrike Aspek Udalaren jarrera kritikatu du, herritarren alde egin beharrean, kanpotarren alde egin duelako.



Urugukoak lurjabe berriarekin eztabaidan; harriak dituzte ipinita baserri aurrean.

UDALAREN ARGUDIOAK

Bere aldetik, Mertxe Mondragon alkateak esan digu Urugu aurreko bidea publikoa dela eta zabalik egon behar duela; gaineratu du Urugukoak ez badaude horrekin konforme, behar den lekura

joan eta erreklamatu egin beharko dutela. Halaber, jakinarazi digu, orain arte katastroaren gainean egin dituzten bi alegazioak atzera bota dizkietela.

Beraz, ikusten denez, ez du konponbide erraza ika-mikak.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a / 3. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

KIROLA/ Ekainean Leintz Gatzagatik pasatuko da Euskal Bizikleta; datorren urtean herrian amaituko da etapa bat, eta hurrengo eguneko hasi

“Euskal Bizikleta Gatzagara ekartzea herriari bultzada emateko aitzakia da”

XABIER URTZELAI

Joan den astean aurreratu genizuen herriko lagun talde batek lortu duela Euskal Bizikleta herrira ekartzea. Eta, horretan buru-belarri lanean ibili den lagunetako bat da Alberto Altube. Gauza gaitzena lortu dute, baina oraindik asko dago egiteko.

Datorren urteko ekainaren 2an, egubakoitza izango da, Euskal Bizikletako etapa bat Leintz Gatzagan amaituko da, eta hurrengo eguneko ere bertan hasiko dute. Hori lortzeko, Alberto Altubek eta gainontzeko taldekideek joan den urtean egin zuten eskaria: “Antolatzaileak oso ondo portatu dira gurekin. Ikusi dute nolako lana egiten gabiltzan, eta pentsatu dute merezi dugula Euskal Bizikleta Gatzagara ekartzea. Hasieran, etapa herrian amaitzeko egin genuen lan. Baina, hori ez zitzaigun nahikoa iruditzen, eta hurrengo eguneko ere hemen hasteko eskaera egin genien. Izan ere, etapa amaiera denean berehala jasotzen dute dena, hurrengo herrira joateko. Baina hurrengo eguneko ere herrian hasiko denez, goizean oso giro polita izango da”.

Euskal Bizikletako antolatzaileek, gatzagarren eskaera guztiak onartzeaz gain, oparia ere egin diete: “Aurtengo lasterketa ere herritik igaroko da, eta hori sorpresa handia izan da guretako. Ekainaren 3an igaroko da lasterketa hemendik, egubakoitzean. Murgiatik etorriko dira, Venta Frian tarteko helmuga jarriko dute, eta errepide berritik jaitsi beharrean, zaharretik jaitziko dira, herritik”.

DORLETARAKO ERREPIDEA

Datorren urteko etapak ikusgarriago egiteko, antolatzaile lanean dabilen herritarrek uste dute beharrezkoa dela Dorletako Santutegia eta Arlabango errepide lotuko lituzkeen errepidea egitea: “Orain pista bat dago hor, eta Udalarari eskatu diogu pista hori asfaltatzeko. Guk gura duguna da etapa berean txirrindulari-



Alberto Altube dabil, Gatzagako eta Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteko lagunekin batera, antolatzaile lanetan.

riak birritan igarotzea Gatzagatik. Baina maldan behera pasatzen badira ikusi ere ez ditugu egingo. Horregatik, lehenengo Dorletara bidaltzen baditugu, handik Gatzaga berriko errepi-

dera igotzeko, lasterketa askoz ere ikusgarriagoa izango da. Horrekin batera, Dorletako Amari bultzada eman gura diogu, bera da-eta orain dela 26 urtetatik txirrindularien zaindaria. Eta gai-

nera, errepide berri horrek on egingo dio herriari, beste irteera bat izango dugu-eta. Udalak jarrera ona erakutsi du; alkatearekin izan gara berbetan, eta lagunduko digula esan digu. Bai-

“Lehenengo eginbeharra pista egitea da”

Alberto Altubekin batera, Leintz Gatzagako alkate Joxerra Perezekin ere izan gara, Dorletako Santutegia eta Arlabango errepide berria lotuko dituen errepide horren gainean berbetan: “Egia da errepide horrek on egingo diola herriari, beste irteera bat izango dugulako. Baina, lasterketa antolatzen dabilzanak kontu horrekin azkar samar dabilzala esango nuke, ezer asfaltatu aurretik lehenengo behar den moduko pista egin behar dela-

ko. Oraindik ez dugu baimenik jaso, baina ez dut uste arazorik egongo denik. Gero, inguruko lur-jabeek ere baimena eman beharko dute, eta pista egindakoan ikusi egin beharko dugu asfaltatzeara nola dagoen. Asmoa da pista hori aurten egitea, eta datorren urtean Arlabanen lanak egin behar dituztenez, ondo egongo litzateke ekarriko duten makineria aprobetxatuz pista hori asfaltatzea. Lehenengo eginbeharra, baina, pista egitea da”.

“Orain, babesleak lortzeko hasi beharko gara lanean, diru asko behar da-eta”

“Estatu osoko txirrindularien zaindaria dugu hemen, ahaztu samar, baina”

na pista hori asfaltatzeko Udala bakarrik ez, Diputazioa eta Eusko Jaurlaritza ere presionatu beharko ditugu”.

Euskal Bizikleta herrira ekartzeak, baina, ordain bat dauka: “30.000 euro behar dira horreko lasterketa bat herrira ekartzeko, eta bistan da ahalegin handia egin behar dela diru hori lortzeko. Orain, babesleak bilatzen hasiko beharko dugu, nahitaez eta dagoeneko batzuek esan dituzten laguntzeko gertu daudela”.

HERRITARREN LAGUNTZA, EZINBESTEKOA

Albertok argi dauka datorren urtean herritar askoren laguntza beharko dutela: “Orain arteko lana talde baten artean egin dugu, baina etapak antolatzeko herritar askoren laguntza beharko dugu. Eta badakit laguntza hori izango dugula, beste lasterketa batzuk izan ditugunean herriko talde eta elkarteak laguntzeko gertu egon direlako”. Horrelako proba batek herritarren ematen dion bultzadaren gainean ere egin dugu berba: “Oso ekimen positiboa da, bai herritarrendako eta baita herritarren dako ere. Gutxitan elkartzen gara gatzagar guztiak, eta herriari eta Dorletako Santutegiari bultzada emateko aukera ezin hobea daukagu. Azken batean, lasterketarena aitzakia polit bat bat no ez da”.

Ordenagailu eta proiektagailu bidez gidatutako eskolak

Arbel digital baten laguntzarekin

Mota guztietako gidatzeko baimenak ateratzeko aukera.
LARRINGANEK.

Ordutegia, zure beharretara egokitua.
LARRINGANEK.

Testak egiteko CD bat etxera eramateko aukera, irakaslearen jarraipen osoarekin.
LARRINGANEK.

Gogo pixka bat.
NORBERAK.

Ekainetik aurrera trafikoko test Berriak!



Basabe poligonoa F-0-7
Aretxabaleta

Garibai etorbidea 5
Arrasate



50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

Jentilak, Elurzuloak,
Kontrabandisten bideak,
Pozalagua, Baltzola,
Aixerrotak...
Tokian tokiko ohitura, kultura,
istorio eta altxorak ezagutzeko
50 mendi buelta.

Apirilaren 24tik aurrera



egunero ibilbide bat **DOAN BERRI**arekin



Euskaldunok behar dugun

berria

Laguntzaileak:



Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk, Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otalora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldagian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22